

EAEko ETORKINEI ZUZENDUTAKO zerbitzuetako JARDUNBIDE EGOKIEN azterketa

Pobrezia eta giza
bazterketaren
aurkako europar
sarea Euskadin



ENPLEGU ETA GIZARTE
GABETAKO SAILA
Gizarte Gaitasuko Sailburuordetza
Immigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejera de Asuntos Sociales
Dirección de Inmigración

EAEko etorkinei zuzendutako zerbitzuetako jardunbide egokien azterketa 2009

Egilea: Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako
europar sarea Euskadin (EAPN Euskadi)

Diseinua eta maketazioa: St3 Elkartea

Inprimaketa: Berekintza

L. G.: BI-000-00

EAEko ETORKINEI ZUZENDUTAKO zerbitzuetako JARDUNBIDE EGOKIEN azterketa

Pobrezia eta giza
bazterketaren
aurkako europar
sarea Euskadin



ENPLEGU ETA GIZARTE
GABETAKO SALA
Gizarte Gaitetako Sailburuordetza
Immigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Inmigración



EAPN EUSKADIKO LEHENDAKARIAREN GUTUNA

Lerro hauetan Euskadiko pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sareak (EAPN Euskadik) 2009. urtean, eremu publikoan nahiz pribatuan etorkinekin diharduten **pertsona askoren laguntza, lankidetzeta, esfortzu, dedikazio eta irrikari esker**, egindako Immigrazioari buruzko jardunbide egokien eskuliburua aurkeztu nahi dizuegu.

Une oro ardatz izan dugun helburua **EAEen immigrazioaren alorrean ezagutza eta esperientzia duten eragileen sarea sortzea izan da**, horiek gure inguruan etorkinen arreta eta esku-hartzean egiten dituzten jardunbide egokiak aurkeztu, aztertu eta hausnar ditzaten. Eskuliburuak eremu hauetan gauzatu-tako hausnarketa islatzen du: dokumentazioa, etxebizitza, enplegua / prestakuntza, finantza-produktuetarako sarbidea, kulturartekotasuna eta faktore erlijiosoa kontuan hartzen duten esperientziak. Eremu horietan etorkinekiko esku-hartzeak nahikoa esperientzia, ibilbide eta eztabaida izan du ezaugarri horietako azterketa egin ahal izateko. Gure nahia, une oro, **Euskadin jada garatzen ari diren** esperientzietatik ikastea eta pertsona horiekin lan egingo duten ahalik eta erakunde gehienei horien berri ematea izan da.

Lan hori garatzea, ordea, ezinezkoa izango zen EAEen etorkinei harrera emateko eta haiek gizarteratzeko lan egiten duen hainbat erakunde sozialen partaidetzarik gabe. Hori dela eta, **proiektuan parte hartu duten erakunde eta pertsona guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu proiektuarekin agertu duten lankidetzeta eta konpromisoarengatik.**

Era berean, **Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzatik jaso dugun laguntza eskertu nahi dugu**, hori gabe ere ezinezkoa izango baitzen gure helburuak lortzea eta jardunbide egokien eskuliburu honetan islatzea.

Juan Ibarretxe Karetxe
EAPN Euskadiko lehendakaria.

AURKIBIDEA

1. EAPN Euskadiren aurkezpena	4
--	----------

2. EAPN Euskadiko proiektuaren jatorria	6
--	----------

2.1 Lan eremuak	8
-----------------------	---

2.2 Lan metodologia	8
---------------------------	---

3. Jardunbide egokien hautaketa EAEko immigrazioaren alorrean	12
--	-----------

3.1 Etxebizitzaren eremua	13
---------------------------------	----

3.1.1 Errealitatearen azterketa	13
---------------------------------------	----

3.1.2 Etxebizitzako jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa	15
---	----

3.1.2.1 Etxebizitzaren alorreko jardunbide egokiak	17
--	----

3.1.2.2 Nabarmendu beharreko ekimenak	19
---	----

3.1.2.3. Etxebizitzaren alorreko azterketa interesgarriak	22
---	----

3.2 Dokumentazio alorra	22
-------------------------------	----

3.2.1 Errealitatearen azterketa	22
---------------------------------------	----

3.2.2 Dokumentazioko jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa	24
--	----

3.2.3 Dokumentazioko jardunbide egokiak	26
---	----

3.3 Enpleguaren / prestakuntzaren alorreko jardunbide egokiak	29
---	----

3.3.1 Errealitatearen azterketa	29
---------------------------------------	----

3.3.2 Enpleguko/prestakuntzako jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa	32
---	----

3.3.2.1 Enpleguko/prestakuntzako jardunbide egokiak	34
---	----

3.3.2.2 Nabarmendu beharreko ekimenak	47
---	----

3.4 Finantza produktueterako irisgarritasun eremua.....	48
3.4.1 Errealitatearen azterketa	48
3.4.2 Finantza produktueterako irisgarritasuneko jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa	49
3.5 Kulturartekotasunaren alorra	51
3.5.1 Errealitatearen azterketa.....	51
3.5.2 Kulturartekotasuneko jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa.....	52
3.5.2.1 Kulturartekotasunaren alorreko jardunbide egokiak.....	54
3.5.2.2 Nabarmendu beharreko ekimenak.....	64
3.5.2.3. Kulturartekotasunaren alorreko azterketa interesgarriak.....	66
3.6. Faktore erlijiosoa kontuan hartzen duten esperientzien alorra.....	68
3.6.1 Sortzen ari den errealitateari aurre eginez	68
3.6.2 Erlijio aniztasuna gizarteratzeko faktore bilakatzea	68
3.6.3 Faktore erlijiosoa kontuan hartzen duten ekimenei buruzko gure hausnarketa.....	70
4. PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN ETA ELKARTEEN ZERRENDA	83
Terminoen glosarioa	86
BIBLIOGRAFIA	89

1. EAPN' EUSKADIREN AURKEZPENA

Sarea 1997. urtean sortu zen ofizialki eta pobrezia- eta giza bazterketaren aurkako borrokan esku hartzen duten hirugarren sektoreko erakundeak biltzea du xede. Egun EAE guztiko 31 erakundek eta bazterketa-egoeran dauden hainbat kolektibo motak osatzen dute.

EAPN Euskadi estatuko EAPN España sareari lotuta dago. Azken horrek lurralde mailako 13 sare eta estatu mailako 14 erakunde ditu.

Jatorria Bruselan du *-European Anti Poverty Network-* eta bertan 27 sare nazional eta Europako 22 plataforma biltzen dira. Horien guztien arteko lotura Europako pobrezia-ekin amaitzeko borroka da.

helburua

EAPN Euskadiren xedea Euskadin pobrezia- eta giza bazterketaren borrokan esku hartu eta sarean lan egiteko prest dauden hirugarren sektoreko erakundeak biltzea da. Horrela, sarean lan eginez, koordinatu, esperientziak trukatu, kideak trebatu, proiektu komunak landu eta elkarrizketarako gaitasuna duen presio-taldea sortzeko; pobrezia- eta bazterketa-egoeren berri emanez eta salatuz, eztabaida soziopolitikoak sustatuz eta egoera horiei aurre egiteko alternatiba baliagarriak aurkeztuz.

Helburu hori betetzeko, EAPN Euskadi sarea estatu mailako sareari lotuta dago eta, beraz, baita Europako sareari ere; horiekin helburuak eta metodologiak partekatzen ditu eta haien ekintzetan parte hartzen du.

Helburu horrekiko konpromisoaren ondorioz, kide diren erakundeek eurek planteatu eta onetsitako ekintzekin bat datozen baliabideak ekartzen dituzte.

ikuspegia

EAPN Euskadik elkarteen aliantza moduan balioetsi eta aitortzea nahi du eta, horretarako, pobrezia- eta bazterketa-egoeran dagoen pertsona jardueraren ardatzean jartzen du, bazterketa soziala eragiten duten arrazoiak erauzte aldera.

Hortik, saretzat hartzea nahi duela ondorioztatzen da:

- Elkar osatzen eta laguntzen duten askotariko elkarteak biltzen dituen.
- Erakundeen arteko koordinazio-tresnak sortzen berritzailea.
- Erakunde sozialentzako erreferentea.

¹ Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social. De sus siglas en inglés: European Anti Poverty Network.

- Gizarte-politiken aurkako kritika.
- Bazterketa-egoera eta baldintza berriak jasotzen eta haiei aurre egiten dieten alternatiba jakinen sustatzailea.
- Elkarriketarako eta ordezkapenerako gaitasuna.
- Antolaketa horizontala, plurala, independentea eta eraginkorra.
- Kontzientzia sozialaren agitatzailea, iritziz publikoa arazo horren aurrean sentikor bihurtuz.

balioak

EAPN Euskadik, elkartutako erakundeekin, Administrazio Publikoarekin eta gizartearekin oro har duen harremanetan, printzipio hauen arabera jokatu du:

- **Lankidetzeta eta partaidetzeta** sareko ekintzetan, kide diren erakundeen arteko berdintasunari dagokionez, elkarte horizontalari dagokion moduan.
- Kideen aniztasunak dakarren aberastasuna errentagarri egiten duen eta sinergiak sortzen dituen **heterogeneotasuna** babestea.
- **Iritziz propioa eta independentea**; pobrezia- eta bazterketa-egoerak salatzen ditu botere publiko, pribatu eta iritziz publikoaren aurrean.
- **Irabazi-asmorik gabeko** erakundea, gardena eta zuzena.
- **Pertsonaren** aldeko apustua **subjektu individual moduan**, aukera-berdintasuna izateko eskubidearekin, egoerari aurre egiteko potentziala aitortuz eta aniztasuna defendatzeko eskubidearekin.
- Baztertutako pertsonen **ahotsa eta partaidetzeta** ematea.

2. EAPN EUSKADIKO PROIEKTUAREN JATORRIA

Azken hamarkadan euskal gizartea aldatuz eta hainbat jatorritako pertsonak (heldu nahiz adingabe) hartuz joan dela ikusi dugu, eta gure auzoetako, ikastetxeetako, lan-tokietako, aisiarako lekuetako... partaide izatera heldu dira. Hori IKUSPEGI behatokiak INEko datuetatik abiatuta egindako biztanleriari buruzko taula estatistikoetan islatuta ikus daiteke (ikus 1. taula).

1. taula. Bertako eta atzerriko biztanleen bilakaera (EAE) eta EAEko eta Espainiako atzerritarren ehunekoak. 1998 -2008.

	1998	1999	2000	2001	2002	2003
EAEko biztanleria	2.098.628	2.100.441	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204
Tokiko biztanleria	2.083.430	2.083.648	2.077.456	2.074.040	2.069.873	2.062.973
Atzerriko biztanleria	15.198	16.794	21.140	27.438	38.408	49.231
EAEko atzerritarren %	0.72	0.8	1.01	1.31	1.82	2.33
Espainiako atzerritarren %	1.6	1.86	2.28	3.33	4.73	6.24

	2004	2005	2006	2007	2008
EAEko biztanleria	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.860	2.155.546
Tokiko biztanleria	2.056.113	2.051.952	2.048.142	2.043.336	2.038.896
Atzerriko biztanleria	59.166	72.894	85.542	98.524	116.650
EAEko atzerritarren %	2.8	3.43	4.0	4.6	5.4
Espainiako atzerritarren %	7.02	3.46	9.2	9.9	11.3

Iturria: IKUSPEGI. INEko datuetatik abiatuta.

Aldaketa sozial hori erakundeetan islatu da, eta arreta eskaintzen zaien pertsonen profila aldatu egin dela ikusi dugu. Etorkinak iritsi aurretik lantzen genituen arreta eta zerbitzuak egokitu behar izan ditugu kultura berrietara, egoera administrati-boetara, prestakuntza eta lan-munduan txertatzeko prozesuetara eta hezkuntza-beharretara.

Aldaketa horiekin, sarea osatzen duten erakunde sozialen bilakaera ikusi dugu, proiektu eta programa berriak sortu dituzte, sinergiak, sareko lanak... hori guztia beste herrialdeetatik etorritakoen arreta eta esku-hartzea ahalik eta onena izan

dadin eta, oro har, gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko tokiko herritarrek baino oztopo gehiago topatzen dituztenentzako.

EAPN Euskaditik garrantzitsuztat jo dugu erakunde sozialetarako garatzen ari ziren eta kolektiboarentzako eta hirugarren sektorearentzako emaitza onak eta interesgarriak lortzen ari ziren ekimen, esperientzia eta praktikei buruzko hausnarketa egitea. Horri lotuta sortu da Immigrazioari buruzko Jardunbide Egokiaren Eskuliburuaren ideia. 2008. eta 2009. urtean abian jarri dugu Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzaren lankidetzari esker.

Proiektu hori EAEn immigrazioaren alorrean lan egiten duten erakundeen artean atzemandako bi beharren ondorioz sortu da:

- a) Alde batetik, formalki eta informalki gure inguruan atzerritarren gizarteratze eraginkorra bermatzeko garatzen diren ekintzak ezagutu behar dira. Ezagutu eta balioetsi ondoren, jardunbide egokiak zein diren finkatu behar dira, sareko lana sustatu eta ikaskuntza eta berrikuntza bultzatzeko.
- b) Bestetik, indarrean dagoen araudiaren mende erakunde sozialek atzerritarrek gizarteratzeko politika praktikara eramateko topatzen dituzten zailtasunei buruzko hausnarketako taldea sortu eta mantendu nahi izan da.

2.1 lan eremuak

Immigrazioak alderdi anitzeko izaera du, hau da, hainbat ikuspegietatik hitz egin dezakegu hari buruz: politikoa, geopolitikoa, gizatiarra, kulturala, erlijiosoa, lanekoa, estrategikoa, ekonomikoa, hezkuntzako, soziala eta abar. Hainbat alderdi ditu pertsonari, haren inguruneari, herrialdeetako garapen ekonomikoari, bizikidetzari, pertsonen interakzioari... eragiten diolako. Hori dela eta, landu beharreko alderdiak definitzeko garaian, erakundeetan egiten ari ziren lanaren eta gertutik ezagututakoaren –esku-hartzearen, prestakuntzaren, ibilbidearen eta erakundeetako esperientziaren bidez ezagututakoaren– araberako sailkapena egin zen.

Lan-eremuak finkatze aldera, EAPN Euskadik etorkinekin lan egiten zuten sareko erakundeak deitu zituen eta horiek sei eremutan lan egitea adostu zuten. Erakundeak eremu horietan ziren indartsuenak, horietan egina zuten ibilbide gehiena eta, besteak beste, hemen aipatutakoei buruzko hausnarketak, esku-hartze proposamenak, lankidetzak eta koordinazioa ekar zezaketen:

1. Etxebizitza
2. Dokumentazioa
3. Enplegua / Prestakuntza
4. Finantza-produktuetarako sarbidea
5. Kulturartekotasuna

6. Erlijioartekotasuna edo esku-hartzeetan erlijioaren faktorea kontuan hartzen duten esperientziak.

Garrantzitsua da azpimarratzea badakigula EAEn immigrazioaren alorrean nagusiki sektore horietan lan egiten den arren, kolektiboarekin lan egiten den beste hainbat eremu ere daudela, hala nola osasuna, etorkinentzako laguntza psikologikoa, garapen komunitarioa, kogarapena... horiek ere azterketan jaso ahal izango dira eskuliburu honetatik abiatuta egingo diren ondorengo hausnarketetan.

2.2 lan metodologia

2.2.1 Lan-taldeen eraketa

Hausnarketarako eremuak adostu ondoren, sareko partaide ez ziren (udaleko immigrazio-teknikariak, unibertsitatea, erakunde sozial eta kulturalak, etorkinen elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak sustatutako zerbitzuak, hala nola HELDU eta BILTZEN...) eta immigrazioan edo etorkinekin lan egiten zuten erakunde eta elkarteetara zabaldu zen taldea. Horrez gain, Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen (REAS) esperientzia eta sarean lan egiteko aholkularitza jaso zen.

Proiektuaren xedea ez zen EAPN Euskadi sareko erakundeen jardunbide egokiak lortzea, EAEn kolektiboarekin jarduten zuten erakunde eta eragile sozialen jardunbide egokia baizik. Horrela, eztabaida eta hausnarketa are aberatsagoak izango ziren.

Sei lan-taldeetako bakoitzaren osaketari dagokionez, talde bakoitzean gutxienez 5 ordezkari egon zitezten ahalegina egin zen; helburu hori talde guztietan lortu zen, finantza-produktuetarako sarbide-taldean izan ezik, talde hori bi erakundez soilik osatu zen (EAPN Euskadi eta FIARE).

Lan-taldeetan emakumeen partaidetza nabarmena izan da, gehiengoa izan baitira talde guztietan, faktore erlijiosoa kontuan izan duten esperientziak aztertu dituenean izan ezik. Koadroan talde bakoitzaren osaketa ikus daiteke (finantza-produktuetarako sarbide-taldearena izan ezik, erakunde kolaboratzaile bakarra duelako):

Dokumentazioaren taldea <ul style="list-style-type: none">• Emakumezkoak: % 62,5• Gizonezkoak: % 37,5	Etxebizitzaren taldea <ul style="list-style-type: none">• Emakumezkoak: % 50• Gizonezkoak: % 50
Prestakuntza / Enpleguaren taldea <ul style="list-style-type: none">• Emakumezkoak: % 77,8• Gizonezkoak: % 22,2	Kulturartekotasunaren taldea <ul style="list-style-type: none">• Emakumezkoak: % 80• Gizonezkoak: % 20
Faktore erlijiosoa kontuan hartzen duten Esperientzien taldea <ul style="list-style-type: none">• Emakumezkoak: % 16,7• Gizonezkoak: % 83,3	

Lan-talde guztietan, gainera, EAPN Euskadiko ordezkari bat egon zen, eta hark koordinatu zuen lana.

Sei hilabeteen lan-talde bakoitza gutxienez bost aldiz bildu zen gauzatzen ari ziren ekimenak ezagutzeko, haiek balioesteko eta jardunbide egokitzat jotzen diren alderdi edo ekimenak hautatzeko, hasieran finkatutako aukeraketa-irizpide orokorreari (eta eremu bakoitzerako irizpide zehatzei) eta jardunbide egokiaren definizioari jarraiki.

2.2.2. Jardunbide egokiaren definizioa

Partaide ziren eragile eta erakunde guztien artean adostu beharreko alderdi esanguratsua jardunbide egokiaren definizio komuna izatea zen. Kontzeptu horri eskuliburu eta gida ugaritan egiten zitzaion erreferentzia, baina ez zegoen proiektu horretarako haren definizio komunik.

Definizio tekniko moduan, jardunbide egokia elementu berritzailearen bat duena dela esan genezake, bai diseinuan, bai inplementazioan, bai orientazioan eta abar. Horrela, erantzun berriak planteatu behar ditu testuinguruko egoera edo arazoan aurrean. Jardunbide egokia hauetako bi ezaugarri gutxienez betetzen dituen proiektu edo programa da, kudeaketarako teknika edo bitartekoa:

- Zerbitzua edo kudeaketa eskaini nahi dien haiengan eragin positiboa sortzea.
- Beste eremu batzuetan (geografikoak) errepikatu ahal izatea.
- Erakunde publikoekin, gobernuz kanpoko erakundeekin edo enpresa pribatuekin duen partaidetzak eskaintzen dituen aukerak modu eraginkorrean aprobetxatzea.
- Arazoa bideratzean sormena azaltzea eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea.

EAPN-Euskadiren immigrazio-proiektuaren kasuan, “Etorकिन गिर्तरतेरतेके अदुसुतेके प्रडुररंते”, **immigrazioaren alorreko JARDUNBIDE EGOKITZAT** hartzen dira² gobernuz kanpoko erakundeek hasitako ekintza, ekimen edo proiektuak, edo erakunde publikoak edo sektore pribatua oinarri dituztenak eta beste batzuek ikasi eta euren egoeretara egokitzeko eredu gisa balio dezaketena. Ikuspegi berritzaileak izango lirateke, EAEn immigrazioaren alorrean hobekuntza zehatzak, neurgarriak eta **iraunkorrak** xede dituztenak eta beste erakundeetara transferitu daitezkeenak.

² “Canada Mortgage and Housing Corporation” erakundeak emandako definizioetik egokituta. Erakunde hori bizitoki sozial eta etxebizitzarako Kanadako erakunde publikoa da (1998).

2.2.3. Irizpideen aukeraketa

Definizio horretatik abiatuta, lan-talde bakoitzak, gaiari egokituta, jardunbide ego-kiak bete behar lituzkeen 4 edo 5 irizpide aukeratu behar zituen. Azkenik, hauek izan ziren sei lan-taldeetan jardunbide egokirako irizpide orokorren hautaketan proposatu zirenak:

1. Ekintza berritzailetzat jotzen da ordura arte egindakotik bereizten dena.
2. Arazo edo aukera identifikatu eta horren aurrean irtenbidea emateko proposatu da.
3. Esku-hartzean aldaketa eragiten ahalegintzen da, eskaera sozial zehatzen edota desberdintasun sozialeko edo injustizia sozialeko egoeren aurrean erantzun ego-ki emanetz.
4. Erakundearen ideiekin eta politika orokorrekarekin koherentzia gordetzen du.
5. Prozesuan sartutako pertsonen partaidetza aktiboa bultzatzen du.
6. Ekimenak onura ekartzen dien pertsonen autonomia eta ongizatea sustatzen du.
7. Planteatutako problematikari erantzuna eskainiko dion **planifikazio egokia** du eta helburuak denbora-tarte jakinerako finkatuko dira (epe luzea, ertaina); planifikazio horrek, era beran, malgua izatea ahalbidetuko dion ebaluazio jarraiturako plana jaso behar du.
8. Aldez aurretik ebaluatu behar da eta kontuan hartu behar dira emaitza arrakastat-suak; planifikazioa lortutako emaitzetara egokitu behar da.
9. Jarduera iraunkorra bihurtzen da baliabideei, laguntza instituzionalei,... dagokio-nez, zuzenduta dagoen herritarrengan eragin positiboa bermatze aldera.
10. Eredu gisa balio die beste erakundeei eta haien errealitatera transferitu edo ego-kiu daiteke.
11. **Generoaren ikuspegia** jasotzen du eta kontuan hartzen du pertsonen **sexu-joera**.
12. Ekimena egiten ari denaren berri ematen duen **komunikazio-plan egokia** du, kon-tuan hartuta zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsona guztiak.

2.2.4 Batzorde iraunkorra

Proiektuari ikuspegi globala emateko eta proiektuaren koordinatzaileari laguntzeko, lanaren jarraipena egin duen batzorde iraunkorra finkatu zen. Horrez gain, talde bakoitzean hausnarketa gauzatu du eta finkatzen joan diren jardunbide egokiak eta gomendioak balioztatu ditu.

Batzorde iraunkorra hauek osatu dute:

- ✓ EAPN Euskadiko zuzendaritza-batzordeko bi kide,
- ✓ EAPN Euskadiko gerentzia
- ✓ Harresiak Apurtuz taldeko Idazkaritza Teknikoa
- ✓ Immigranteen kolektiboko bi ordezkari

Bilera guztietan proiektuko eta lan-taldeetako koordinatzailea egon zen.

3. JARDUNBIDE EGOKIEN HAUTAKETA EAEKO IMMIGRAZIOAREN ALORREAN

3.1 etxebizitzaren eremua

3.1.1 Errealitatearen azterketa

Etxebizitzaren eremuak atzerritarrek etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzeko hainbat erakundetatik garatzen ari diren esku-hartzeak jasotzen ditu. Immigrazioari buruzko II. Euskal Planeko funtsezko hamaika esku-hartzeetako baten moduan hartzen da (2007-2009) eta inmigranteen kolektiboaren behar bezalako gizarteratzea gauzatzeko ezinbesteko elementutzat; izan ere, lana edo partaidetza soziala bezalako beste alor garrantzitsuetan eragiten du.

EAEko atzerritar biztanleriaren kopurua oso txikia da oraindik estatuko beste autonomia-erkidegoekin alderatuta, egun EAEko biztanleria guztiaren % 5 ia ez baitu gainditzen; hala ere, nabarmendu beharra dago hiru urte eskasetan atzerritarren biztanleria % 60 hazi dela³. Bizkaia da oraindik ere atzerritar biztanle gehien jasotzen dituen probintzia (guztiaren % 49,8), Arabako probintzia da, ordea, "immigrazioaren ehuneko handiena duena: % 7,3, Bizkaiko eta Gipuzkoako % 5,1en aurrean"⁴. Atzerriko biztanleen banaketari dagokionez, pertsona gehienak probintzietako hiriburuetan biltzen direla esan daiteke, eta horietan, etxebizitzaren prezioa eskuragarriagoa den auzo jakinetan. Atzerriko biztanle gehienak honela banatzen dira:

- Bilbo: atzerriko biztanleriaren % 10 baino gehiago San Frantzisko, Bilbo zaharra eta Alde Zaharra auzoetan biltzen da; hala ere, pixkanaka etxebizitzaren prezioa eskuragarria den beste auzoetara zabaltzen ari da.
- Donostia: atzerritarren kopuru handiena hiriburuko Alde Zaharrean biltzen da, guztizkoaren % 7,7 arte.
- Gasteiz: biztanle atzerritarren gehiengoa hiriburu horretako Alde Zaharrean bizi da, guztira % 15.

³ IKUSPEGI behatokitiko datuen arabera, 2005. urtean EAEko biztanle atzerritarren kopurua 72.894 zen, eta 2008. urtean, berriz, guztira, 116.650.

⁴ IKUSPEGI. "EAEko biztanleria atzerritarra. 2008ko abuztua".

1. mapa. Biztanleria atzeritarraren banaketa Euskadiko hiriburuetan (%).



Iturria: IKUSPEGI. INEko datuetatik abiatuta.

Etxebizitza eskuratzeko arazoak ez die etorkinei soilik eragiten, gizarteari oro har baikik. Zenbait kasutan etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunak sortzen dituzten arrazoi ekonomiko, sozial, politiko eta laneko arrazoi ondoz gertatzen da⁵.

Etorkinen etxebizitzarako sarbide-arazo horiei beste batzuk gehitu behar zaizkie, besteak beste, enplegu-kolokatasuna, auzokoen gaitzespena, errentari moduan eskubideen ezjakintasuna edota etxejabeen edo auzoko komunitatearen beste kultura, erlijio edo tradizio batzuekiko ezjakintasunak sortutako aurreiritzien ondoriozko diskriminazio-egoerak. Hori dela eta, interesgarri jotzen dira herritarrenganako sentsibilizazio-ekimenak, bi gai nagusiri buruz: bestelako kultur identitateen ezagutzaren sustapena eta haien elkarreragina eta kolektiboek aurre egin behar izaten dieten arazoak ikustea.

Baldintza horiei etxebizitzaren prezio altua, lan egonkorra bilatzeko zailtasuna eta egoera administratibo irregularrean daudenen bankuko kredituen eskurazintasuna gehituz gero, egiazta daiteke EAEko etorkin gehienek alokairuko etxebizitza hartzen dutela, eta ez jabetza erregimenerakoa. EUSTAT erakundearen 2008ko Etxebizitzaren behar eta eskaerei buruzko galdeketa arabera, atzeritar jatorriko BOE esleipendunen % 81ak alokairuko erregimenerako joera du.

Bestalde, etorkinen egoerak okerrera egiten du, kolektibo gaztea baita (kolektiboaren % 84,3 berrogeita bost urtetik beherakoa da), sare sozial sendorik gabea eta zenbaitetan langabetuak edo aldi baterako lan-kontratua edo kolokako enplegua dutenak eta horrek zaildu egiten du etxebizitza eskuratzekoan abal sendoak izatea.

⁵ *“Espainiar guztiak dute etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea. Botere publikoek beharrezko baldintzak sustatuko dituzte eta dagozkion arauak xedatuko dituzte eskubide hori bete dadin eta, horretarako, lurzorua erabilera arautuko dute interes orokorrari jarraiki espekulazioa saihesteko. Komunitateak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du (Espainiako Konstituzioko 47. art.)”.*

Etxebizitza eskuratzeko baldintza ez bada ere, etxebizitza izateko aukerarekin lotuta dago Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak xedatutako errolda-eskubidea. Errolda eskuratzea, gaur egun, eta ez EAEn soilik, etorkinek oinarritzko hainbat eskubidetara heltzeko (osasuna eta laguntza ekonomikoak kasu) topatzen duten oztopoetako bat da. Hau da, etxebizitza izan dezakete (sabaia), baina ez eskubideak aldarrikatu eta erabili ahal izateko egotzitako bizilekurik. Zenbait kasutan, prezioa jarri izan zaio herritar guztiei dagokien eskubideari, jatorria edo egoera administratiboa edozein dela ere.

IKUSPEGI Immigrazioaren Behatokiak 2007. urtean etorkinei egindako lehen makro-galdeketa gehienek erroldatuta zeudela aitortu zuten (galdetutako guztien % 91,1). Erroldatuta ez zeudela esan zutenetik % 59,1ek ez zela saiatu ere egin esan zuen, eta % 31,8k, saiatu bai, baina ez zuela lortu adierazi zuen. Nahiz eta atzerritar gehienak erroldatuta dauden, nabarmendu behar da kasu asko direla erroldatu gabekoak (saiatu diren arren) eta, beraz, aipatutako oinarritzko eskubi-deak eskuratzeko aukerarik ez dutenak. Kontuan izanda erroldak garrantzi berezia duela egoitza-baimena eskatzeko⁶, gure ustez arreta berezia merezi duen gaia da eta, beraz, etxebizitzaren taldean aztertuko diren ekimenetan jasoko da.

3.1.2 Etxebizitzako jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa

Etxebizitzaren taldeko **hausnarketaren helburu nagusia** alor horretan garatzen ari diren ekimenen berri izatea izan da, eta immigrazioaren alorrean, etorkinentzako etxebizitza duinerako sarbidea errazteari lotuta, eguneroko lanean egiten diren jardunbide egokiak zein diren finkatzea. Horretarako, **talde horren arabera** etxebizitzaren alorrean jardunbide egokiak hautatzeko **oso garrantzitsuak diren hainbat irizpide** aukeratu dira. Hortaz, taldearen esanetan, etxebizitzaren alorreko jardunbide egokiak hauek beteko ditu:

- Arazoa edo aukera identifikatu eta horren aurrean irtenbidea emateko proposatu dena izatea.
- Esku-hartzean aldaketa eragiten ahalegintzen da, eskaera sozial zehatzen edota desberdintasun sozialeko edo injustizia sozialeko egoeren aurrean erantzun egokia emanez.
- Jarduera iraunkorra bihurtzen da baliabideei, laguntza instituzionalei,... dagokionez, zuzenduta dagoen herritarrengan eragin positiboa bermatze aldera.

⁶ ARARTEKOAREN txostenaren arabera (II.5 puntua-Etorkinentzako arreta berezia: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1673_3.pdf) egoitza-baldintzari dagokionez, egiaztatzeko, erroldan izena emateaz gain, bestelako dokumentuak onartzen hasi dira, banku-igorpenen ziurtagiriak kasu.

- Eredu gisa balio die beste erakundeei eta haien errealitatera transferitu edo egokitu daiteke.

Hemen azaltzen dugun atalean hauek jasotzen dira:

- a) Etxebizitzaren alorreko hausnarketatik jardunbide egokitzat hartu den **ekimena**. Ekimena nabarmentzen duten alderdiak azalduko dira eta hobetu daitezkeenak kontuan hartuko dira.
- b) Etxebizitzaren alorrean, jardunbide egokietan jasotzen ez diren arren, taldeak nabarmendutako eta susta daitezkeen hainbat alderdi dituzten ekimenak. “**Nabarmendu beharreko ekimenak**” koadroan aurkituko dugu azalpena.
- c) Etxebizitzaren gaian bereziki eragiteagatik interesgarri jotzen ditugun **azterketen** erreferentzia. Hautatutako azterketaren fitxa azalduko da, baita nabarmendu beharreko alderdiak eta haiekiko erreferentziak ere.

3.1.2.1 Etxebizitzaren alorreko jardunbide egokiak

ESPERIENTZIAREN IZENA	ETXEBIZITZAREN ARTEKARITZA PROGRAMA_ ETXEBERRI
KATEGORIA	Etxebizitzaren alorreko artekaritza / bitartekotza zerbitzua
ERAKUNDEA	GOIZTIRI ELKARTEA
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA	Eusko Jaurlaritza, Barakaldoko Udala eta BBK.
DESKRIBAPENA	<p>2006. urtean etxejabeen eta maizterren artean bitartekotza egiteko sortutako Higiezinaren artekaritza-zerbitzua, etxebizitza duina eskuratzeko. “ETXEBERRI” programaren xede nagusia zailtasun bereziak dituzten kolektiboetara etxebizitza duina eskuratzeko aukera eskaintzea da. Etxebizitza eskuratu nahi dutenek gizarteratzeko amaierako prozesuan lagunduko dien erakunde sozialaren laguntza izan behar dute.</p> <p>JARDUERA hauek egiten dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Maizter eta etxejabeen arteko artekaritza eta bitartekotza. - Etxebizitzari buruzko aholkularitza eta informazioa. - Alokaturako etxebizitzaren kudeaketa integrala.

**ETXEBIZITZAREN
ALORREAN
NABARMENDU
BEHARREKO
ALDERDIAK**

ETXEBERRI programa jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):

- Egoera zehatzari irtenbidea emateko proposatutako programa da; egoera horretan, pertsona askok ezin zutela etxebizitza duina eskuratu ikusi zen.
- Esperientziak esku-hartzearen aldaketa dakar, atzemandako eskiera sozial zehatzetarako erantzun egokia eskaintzen baitu.
- Eredua gisa baliagarri izan daiteke beste erakunde batzuetarako eta haien errealitatera transferitu edo egokitu daiteke.

Gainera:

- **Etxebizitzaren alokairuko merkatu librearekin lehitzeko gai** da.
- Programak sinergiak sortzen ditu GOIZTIRI elkarteak garatzen dituen programetatik abiatuta.
- Etxebabeekin sentsibilizazioa landuz etxebizitza duina eskuratzeko aukera azpimarratzen du.

Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):

- Diru-laguntzak jasotzen ditu lana garatzeko. Hortaz, ez du iraunkortasunaren irizpidea betetzen.
- Baliabide pertsonal eta material gutxi ditu erakundearen egungo etxebizitza-parkea kalitatearekin kudeatzeko.
- Maizterren eta etxebabeen arteko harremana sustatu eta hobetu behar da.

INPAKTUA

- Erakunde publikoen eta partikularren bitartekotzaren bitartez **100 etxebizitzaren** bilketa eta mantentze-lanak gauzatzen dira.
- Etxebabeei eta maizterrei alokairuko etxebizitzari buruzko bitartekotza eta aholkularitza ematen zaie.
- Ekimenaren jarduketara (**independentea**) alokairuko **merkatu librean**, eta artekaritzako eremuan merkatuko errenta % 20 eta 30 artean murriztuz.
- Etxebizitza duina eskuratzeko aukera eskaintzen zaie 107 familia edo bizikidetzeta-talderi. 320 pertsonaren etxebizitza-beharrari erantzuteak zer esan nahi duen⁷.

⁷ Datuak ekimenaren 2003. eta 2008. urteen arteko jardunari dagozkio.

3.1.2.2 Nabarmendu beharreko ekimenak

KATEGORIA	EKIMENA	NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK	ERAKUNDEAK
<p>EGOITZA-BALIABIDEAK</p>	<p>MUNDUTIK MUNDURA PROGRAMA⁸</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Koordinazio handia Mundutik Munduraosatzen duten erakunde guztien artean. - Protokoloak hasieratik finkatuta izateak eta jarraipenak eragin zuzena dute emaitza onak eskuratzeko. - Oso protokolizatutako eta denbora mugatuko prozesuak. - Hitzarmena Bizkaiko Aldundiarekin: iraunkortasuna. - Programa beharrezkoa eta eskaera oso handia den arren, garrantzitsua da adinari, prozesuen iraupenari eta sarbide-irizpideei buruzko mugak finkatzea. - Positibotzat jotzen da prozesuetan eskaintzen den hezkuntza mailako arreta. 	<p>Erakunde laguntzaileak: AGIANTZA, ELKARBANATUZ, GOIZTIRI, LAGUN ARTEAN.</p> <p>Erakunde kudeatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia</p>
	<p>HEMEN PROGRAMA⁹</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Mundutik Mundura programara sartzerik izan ez duten etorkin gazteei estaldura emateko erakunde sozialetatik sortutako programa da. - Erakunde sozialek hautatzen dituzte programaren har-tzaileak izango direnak. - Partzuergoaosatzen duten erakundeen arteko koordinazioa. - Pertsona kopuru handia da onuraduna. - Lehenik eta behin, ostiatua ematen da (logelak, aterpe sozialak, abegi-etxeak) eta, ondoren, bestelako beharrei erantzuten zaie. - Nabarmendu beharrekoa: programan sartzen diren gazteak haien egoeraz jabetzea eta betebeharez arduratzea balioesten da. 	<p>Erakunde laguntzaileak: Elkarbanatuz Elkarteak, CEAR, Peñascal F., Izangai. Caritas, Goiztiri Elkarteak, Elakuria F..</p> <p>Erakunde kudeatzailea: CEAR Euskadi (partzuergoko buru).</p>

⁸ Emantzipazio-prozesuan dauden eta BFAK kudeatutako 18-23 urte arteko etorkin gazteei zuzendutako egoitza-baliabidea. Adingabeak diren artean gutxienez urtebetez instituzionalki babestuta egon izatea eskatzen da. Intentsitate altuko etxebizitza bat dute, intentsitate ertaineko 10. eta autonomiako 8 etxebizitza.

⁹ 7 erakunde osatutako partzuergoa. Babesteke zentroetatik datozen eta foru aldundiko emantzipazio-programetan sartu ezin izan duten 18-21 urte bitarteko etorkin gazteentzako laguntza- eta orientazio-zerbitzua. Etxebizitzaren alorrean sartzen da lehen mailako ostiatua ematen zaieleko.

<p>Salaketa- edota sentsibilizazio-ekimenak</p>	<p>EMAKUME ETORKINENTZAKO EGOITZA BALIABIDE ESPEZIFIKOAK¹⁰</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Familiarekin edo gabe, bakarrik dauden emakume etorkinentzako pisuak. - Adingabeko seme-alabak euren kargura dituzten eta bakarrik dauden emakume etorkinentzako pisua. 	<ul style="list-style-type: none"> - LAGUN ARTEAN elkartea. Bilbo. - AFROAMERIKAR elkartea. Gasteiz. - OSATU elkartea (haur jaioberriak dituzten emakumeentzako laguntza espezifikoa). Bilbo - ITAKA-ESKOLAPIOAK Fundazioa (seme-alaba adingabeak euren kargura dituzten emakumeentzako laguntza). Bilbo
	<p>BESARKEAK¹¹</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Prostituzioan jarduten duten emakumeentzako pisua. - Askatasunik ez duten emakumeentzako pisua. - Olatu soziala da, eta bertako maizterrek ardurak hartzen dituzte, horrela, haien ostatu-beharraren egoera duin bihurtzen da. - Boluntarioez elikatzen da, beraz, osatzen dutenen konpromiso sendo eta iraunkorra eskatzen du. 	<p>ASKABIDE elkartea</p> <ul style="list-style-type: none"> - GOIZTIRI elkartea. Barakaldo. <p>Erakunde kudeatzaileak: BESARKATUZ</p>
<p>Salaketa- edota sentsibilizazio-ekimenak</p>	<p>BESTE BI EGOITZA BAZTERKETAREN AURKAKO PLATAFORMA¹²</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Salatu beharreko giza bazterkeria edo diskriminazio-egoeraren aurrean berehalakotasuna izaten da erakunde deialdian, irtenbidea ematen ahalegintzeko. - Erakunde sozial askoren esku-hartzea. - Egitura arin eta horizontala du. 	<p>Erakunde laguntzaileak: Agiantza, Askabide, Bidesari, Bizitegi, Caritas Bizkaia, CEAR Euskadi, San Antonio Jantokia, Hiesaren kontrako Bizkaiko Batzordea, Elkarbanatuz, Emaus Bitartean, Goiztiri, Izangai, Lagun Artean, Lanberri, Munduko Medikua, Oblatas – Lehio Zabalik, Besarkatuz, RAIS Euskadi, Sortarazi, T4, Zubietxe, EAPN Euskadi.</p>

¹⁰ Bereziki emakume etorkinei zuzendutako egoitza-baliabideak urriak dira eta azpimarratu egin behar direla uste du taldeak.

¹¹ Bazterketa-egoeran eta etxerik gabe dauden gizon-emakumeentzako egoitza-baliabidea da (pisuak eta ostalutxoak).

¹² Beste Bi hainbat erakunde osatutako plataformak da, besteak beste, EAPN Euskadi. Erakunde horiek kanpaina egiten dute eta gizarteari eta politikoei giza bazterketaz eta bereziki egoitza-bazterketaz arduratzeko eskatzen diete.

3.1.2.3. Etxebizitzaren alorreko azterketa interesgarriak

Bilboko etorkinen diskriminazioari eta etxebizitzarako sarbideari buruzko azterketa.

- **Egilea:** SOS ARRAZAKERIA
- **Jarduera-eremua:** BILBO
- **Finantziatzaileak:** BILBOKO UDALA, IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA (EUSKO JAURLARITZA), BBK.
- **Azterketa hemen aurki daiteke:**
 - MUGAK: SOS Arrazakeriaren xenofobiari eta arrazakeriari buruzko ikerketa- eta dokumentazio-gunea: <http://www.mugak.eu/gunea/arauak/vi/>
 - IKUSPEGI: Immigrazioaren Euskal Behatokia: <http://www.ikuspegi.org>

LABURPENA

Etxebizitza eskuratzean gertatzen den diskriminazioarekiko hurbilketa, partikularren eta higiezin agentzien bidezko alokairuko etxebizitzetan arreta ipiniz eta etorkinek ostatua lortzeko gehien erabiltzen duten irtenbidea aztertuz, hots, alokairuko logelak.

Azterketan alegiazko alokairuko etxebizitzaren bilaketa egin da partikularren iragarrietara deituz eta higiezin agentziak bisitatuz. Horrela, emandako erantzunetan aldeak ikusi dira (etorkinen bikoteak eta etorkinak ez ziren bikoteak eskaintzetara joanez). Alokairuko logelen iragarkiekin ere egin da bilaketa eta komunikabideetako alokairuko etxebizitzaren iragarkien jarraipena eginez atzeritarrak diskriminatzen dituzten edukiak dituzten eskaintzak topatu dira. Ikerketa osatzeko, 16 elkarrizketa egin zaizkie etorkinei ostatua bilatzeko haien esperientziari buruz eta SOS Arrazakeriak estatu mailako arrazakeriaren egoerari lotuta 1992. urteaz geroztik argitaratzen dituen txostenetako etxebizitzaren diskriminazioari buruzko edukiaren azterketa egin da.

Ikerketa bi zatitan banatzen da:

- Egoerarekiko lehen hurbilketa.
- Azterketan sakontzea metodologia hobetuz eta alokairuko logelak gehituz.

2008ko abenduan, txostena jardunaldi batzuetan aurkeztu zen eta gai hauek nabarmendu ziren:

- Etxerik gabeko atzerritarrak.
- Ghettoen eraketa.
- Suediako egoera (politika publikoak, politiketako diskriminazioa)
- Erakunde sozialen erantzuna.

Azterketarekin osatutako txostena eta hitzaldiak (oraingo fasea) argitaratzea da asmoa.

3.2 dokumentazio alorra

3.2.1 Errealitatearen azterketa

Askotan immigrazioa dokumentazio-arazo soila balitz bezala hartzen dugu; horrela, “legez kanpokoak”, “inmigrante irregularrak”, “paperik gabekoak”... aipatzen ditugu, baina argi dago immigrazioaren prozesuan pertsona papera baino gehiago dela. Hala eta guztiz ere, hori horrela bada ere, emigratutako herrialdean bizi eta lan egin ahal izateko dokumentazioa eskuratzea funtsezkoa da egonkortasun pertsonal, ekonomiko, sozial eta lan-egonkortasuna lortzeko (edo lortzen hasteko).

Dokumentazioa eskuratzeko prozesua luzea eta garestia da, eta okerrera egin dezake eskuliburu hau egiten ari zen artean onartutako Atzerritartasun Lege berriarekin. Eskainitako lanpostuetako langabezia-egoera ikustea, lanpostuetarako bertako pertsonak hartzeari lehentasuna ematea, legez kanpoko egoeran 3 urteko egonaldia eta urtebeteko kontratua (“errotze” egoera deritzona) eskatzea, norberaren kontura jarduteko bitarteko ekonomiko nahikoak frogatzea... eta antzeko beste lege-baldintzak pertsona atzerritarraren egoera arautzeko prozesua urteetan luzatzea eragiten duten oztopoak dira, eta beste arazo hauekin lotzen dira: egungo krisi-egoera, pertsona atzerritarrak kontratatzeko errezeloa, zenbait autonomia-erkidegotan “integrazio-kontratuen” eskaera, jatorriagatiko diskriminazioa, enplegu-kolokatasuna eta abar.

Urte horietan erakunde sozialak atzerritarrei bizitza duina izaten laguntzeko egiten dute lan, hauek eskainiz: etxebizitza, prestakuntza, laguntza ekonomikoa, irregulartasun-egoerari irtenbidea bilatzea. Jarduera horiek iazera juridikoa duten beste hauekin osatzen dira: laneko abusu-egoeren salaketa, errotze-txostenak lortzea, errolda eskuratzea, pasaporteak eskuratzea, familia berriz batzea, taldeentzako eta banakoentzako etxebizitza eta lana eskuratzeko aukerei buruzko aholkularitza eta informazioa...

Horrez gain, kontuan izan behar da erregulartasuna ez dela iraunkorra izaten 5 urte igaro arte eta denbora hori igaro artean dokumentazioa eskuratu eta gutxienez hiru aldiz berritu behar izaten dela, lanean jarraitzen dela eta Gizarte Segurantzaz-

rekiko obligazioak bete izana justifikatuz. Enplegu-kolokatasunak eta egungo krisi-egoerak egoera erregularrean zeudenak berriro ere irregulartasun-egoeran erortzea ekarri du. Eta, beraz, berriro hasi beharra. “Gerora sortutako irregulartasuna” deitzen diogu horri, eta era berean, eragina izan du erakunde sozialetan, lehendik egoera erregularizatzeko laguntza jasotako atzerritarrek lan-eskaintza berrien bila itzuli baitira.

Erakunde sozialak ez dira irregulartasun-egoeran dauden atzerritarrez kezkatuta dauden bakarrak, Eusko Jaurlaritzak bere aldetik “Berme juridikoak” eremua xedatu du Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean (2007-2009); bertan eskubide zibilak behar bezala ziurtatzeko berme juridiko espezifikoak beharrezkoak direla xedatu du.

3.2.2 Dokumentazioko jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa

Dokumentazio taldeak zailtasunak izan ditu jardunbide egokiak balioetsi eta hautatzeko, Atzerritartasun Legearen erreformaren ondorioz. Ez dakigu zein izango den azken emaitza, ezta etorkizun hurbilean egin ahal izango den lana zein izango den ere, horregatik, gomendio hauek proposatu dira:

- 2393/2004 Errege Dekretua, 2004ko **abenduaren 30ekoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien integrazioari buruzko 2000ko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena**, eta atzerritarra kontratatu nahi duen pertsona fisiko edo juridikoaren kaudimen ekonomikoa abalatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzkoak 51c artikuluan eskatutako irizpideak argitzea beharrezkoa da.
- Egungo krisi-egoera eta egoitza- eta lan-baimenak berritzezakoan zorrotzasun gehiegi izateak ekar ditzakeen ondorioak nabarmentzen dira. Horrekin gerora sortutako irregulartasuna, enplegu-kolokatasuna eta ezkutuko ekonomia areagotuko dira.
- Dokumentazioarekin (pasaporteak, egozteko aginduen baliogabetzea...) eta etorkinen eskubide sozialen eskurapenarekin lotutako alderdietan sareko lana eta estatu eta erkidego mailako erakunde sozialen lankidetzaren areagotzea beharrezkoa da.

Gomendio horietatik abiatuta, atzerritarren erregularizazioa lortzeko lan egiten duten ekimenak zein diren, haien eskubide sozialetarako irisgarritasuna eta gainerako herritarren baldintza bereko lan-kontratuak ezagutu eta aztertzen oinarritu da hausnarketa. Hori horrela, jardunbide egokiak finkatu dira. Horretarako, **taldearen arabera** dokumentazio-gaietan **oso garrantzitsuak diren irizpideak** hautatu dira eta, beraz, ekimenek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Se haya propuesto ante la identificación de un problema u oportunidad para la cual aporte solución.
- Identifikatutako arazo edo aukeraren aurrean irtenbidea proposatu behar du.
- Ekimenak onura ekartzen dien pertsonen autonomia eta ongizatea sustatzea.
- Planteatutako problematikari erantzuna eskainiko dion **planifikazio egokia** izatea eta helburuak denbora-tarte jakinerako finkatuta egotea (epe luzea, ertaina); planifikazio horrek, era berean, malgua izatea ahalbidetuko dion ebaluazio jarraiturako plana jasotzea.
- Jarduera iraunkorra bihurtzea baliabideei, laguntza instituzionalei eta abarri dago-kienez, zuzenduta dagoen herritarrengan eragin positiboa bermatze aldera.
- Eredu gisa balio izatea beste erakundeei eta haien errealitatera transferitu edo egokitu daiteke.

Hemen dokumentazioaren alorrean jardunbide egokitzat hartzen diren eta etorkinei oinarritzko eskubideetara eta egoitza- eta lan-eskubideetara heltzen laguntzen dieten ekimenak azaltzen dira.

3.2.3 Dokumentazio jardunbide egokiak

PASAPORTEA LORTZEKO LAGUNTZA BATZORDEAK	
ESPERIENTZIAREN IZENA:	
ERAKUNDEAK:	PASAPORTEEN BATZORDE IREKIA: CEAR EUSKADI, CARITAS BIZKAIA, BIZITEGI ELKARTEA
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	Erakunde parte-hartzaileen arteko hitzarmen-markoa.
DESKRIBAPENA:	<p>EAEEn bizi diren etorkinen eta egoitza eskatzen dutenen dokumentazio identifikagariaren –bereziki pasaportearen– gabeziari aurre egiteko zeharkako gizarteratze-programa gauzatea da proiektuaren xedea. Ekimen hori duela hiru urte baino gehiagotik garatzen ari den programa zabalagoaren zati da. Erakunde parte-hartzaileek batzordeari esker jarduten dute, zerbitzua ematen dioten kolektiboaren egoera administratiboa arautzeko eta, batez ere, pertsona horiei bizitza autonomoa eraman ahal izateko ballabide pertsonal eta sozialak emateko.</p>
	<p>Hauen arteko lanbidetza partzuergoa: ZUBIETXE ELKARTEA / IZANGAI ELKARTEA</p> <p>Eusko Jaurilaritza: Immigrazio eta funts propioen zuzendaritza.</p> <p>Pasaporteen izapidetze- edo berritze-prozesuetan laguntza eta finantziak ematen da eta pertsonaren gizarteratze-prozesuaren ondorengo jarraipena eta laguntza ematen da. Helburu orokorra:</p> <p>1. Etorkinei herritarren oinarriko eskubideetara heltzeko laguntza ematea, pasaportea, errolda eta osasun-ixartela eskuratuz.</p> <p>Helburu espezifikoak:</p> <p>1.1 Pasaportea izapidetzea, eskurtea edo berritzea</p> <p>1.2 Erreferentziako helbidean erroldatzea</p> <p>1.3 Osasun-ixartel unibertsala eskurtea</p> <p>1.4 Eskubideetan jasotako laguntza sozialak jasotzea.</p> <p>1.5 Emakumeei haiei zuzendutako ballabide sozialak jasotzea eta informazioa eta laguntza ematea.</p>

<p>DOKUMENTA-ZIOAREN ALORRE-KO JARDUNBIDE EGOKIEI BURUZ NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>Jardunbide egokiari dagokionez hauek hartzen dira indargune moduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Eredu gisa baliagarri izan daitezke beste erakunde batzuetarako, eta haien errealitatera transferitu edo egokitu daiteke. Sareko lana tresna garrantzitsutzat hartzen da. -Arazoa identifikatu eta proposatutako esperientziatik irtenbidea ematen du. -Tartean sartutako pertsonen autonomia eta ongizatea sustatzen du. -Problematikak, helburuak, prozesuak, eragileak eta ebaluazio-plana definitzen dituen planifikazio egokia du. <p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementuak (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> -Batzordearen barruan erakunde bakoitzak ekarritako baliabideen mendekoa da eta ez dago erakunde publikoaren mailan finkatutako laguntza-hitzarmenik. <p>2007ko maiatza eta 2009ko maiatza artean 79 pertsonari lagundu eta dokumentazioa eman zale.</p>	<p>Jardunbide egokiari dagokionez hauek hartzen dira indargune moduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Eredu gisa baliagarri izan daitezke beste erakunde batzuetarako, eta haien errealitatera transferitu edo egokitu daiteke. Sareko lana tresna garrantzitsutzat hartzen da. -Arazoa identifikatu eta proposatutako esperientziatik irtenbidea ematen du. -Tartean sartutako pertsonen autonomia eta ongizatea sustatzen du. -Problematikak, helburuak, prozesuak, eragileak eta ebaluazio-plana definitzen dituen planifikazio egokia du. <p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementuak (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> -Partzuergoa etekina jaso dezaketen edo erantzunak eman ditzaketen beste erakundeetara zabaltzeko aukera kontuan hartzen da. <p>2008. urtean, 73 pertsonak jo zuten laguntza-zerbitzura eta pasaportea eskuratu zuten.</p>
<p>INPAKTUA</p>		

ESPERIENTZIAREN IZENA:	EAEn ATZERRITARRAK KONTRATATU NAHI DITUZTEN PERTSONEI EDO ENPRESEI ERAKUNDE SOZIALEK EMANDAKO LAGUNTZA
DESKRIBAPENA:	<p>Hirugarren sektoreko erakundeek kasu askotan artekaritza-jarduerak gauzatzeko erabiltzen dituzte, etorkinei ordaindutako lana eta laneko kontratua eskuratzen laguntzeko. Horrez gain, enpresen eremuan sentibilizazio-jarduerak bideratzen dira erabil-tzaileei lan-munduan sartzeko laguntza eta lan-poltsak sortzeko aukera emateko.</p> <p>Jarduerari hori beharrezkoa da etorkinak kontratatu nahi dituzten pertsonen edo enpresei kasu askotan horrek ekartzen dituen izapide burokratikoetan laguntzeko. Ekintza horrek eragin positiboa ere badu; izan ere, lan-kontratuak lortzearekin batera irregulartasun-egoerak erregularizatoriantz aldatzea lortzen da.</p>
DOKUMENTA- ZIOAREN ALORRE- KO JARDUNBIDE EGOKIEI BURUZ NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK	<p>Ekimen horiek jardunbide egokitzat jotzen dira arrazoi hauengatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eredua gisa baliagarri izan daitezke beste erakunde batzuetarako, eta haien errealitateara transferitu edo egokitu daitezke. - Sareko lana tresna garrantzitsutzat hartzen da. - Arazo edo eskaera identifikatu eta esperientziei ekarritako irtenbidetik ateratzen dira. - Tartean sartutako pertsonen autonomia eta ongizatea sustatzen dute. - Problematikak, helburuak, prozesuak, eragileak eta ebaluazio-plana definitzen dituen planifikazio egokia dute. - Ebaluatu egiten dira eta emaitzak arrakastatsuek dira; lortutako emaitzetatik ondoriozta daiteke planifikazioa egokia dela eta, oro har, eragin positiboa dutela.

3.3 enpleguaren / prestakuntzaren alorreko jardunbide egokiak

3.3.1 Errealitatearen azterketa

Enpleguaz eta prestakuntzaz hitz egitean garrantzitsua da biztanleria totalari eta biztanleria aktiboari (hau da, 16 eta 65 urte bitartekoa) buruzko datuak izatea. Horretarako, lehenik eta behin datu orokor eta estatistikoei erreparatuko diegu eta, ondoren, EAEko erakunde sozialek inmigranteen kolektiboarekin haien lan-mundurako txertaketari dagokionez egiten duten lana kokatuko dugu.

Espanian errolatutako atzerritarren datu estatistikoen arabera¹³, 2000. urtean errolatutako atzerritarren kopurua 923.879 zen, eta 2008. urtean, berriz, 5.220.577. 8 urtetan 4 milioi pertsona baino gehiagoko hazkundera gertatuta. EAEko errealitateari behatuz, 2005. urtean 72.894 atzerritar bizi ziren EAEn eta 2008. urtean zifrak 116.650 pertsona arte egin zuen gora. Nahiz eta EAE ez den estatuko atzerritarren tasa altuenetakoa duen erkidegoa,¹⁴ hiru urtean % 60 hazi zen.

Datu horiek kontuan hartuta, Espainia izan da Europar Batasunean atzerritar biztanleriaren hazkunde handiena izan duen herrialdea¹⁵. Hazkunde horren zergatia ulertzeko, aintzat hartu behar dira azken urteetan enpleguaren egoerarekin zuzenean lotutako hainbat berezitasun. Migratu nahi duen jendeak, oro har, ez du informazio handirik izaten helmugako herrialdeetako lege-prozedurei eta baldintzei buruz (edo migrazio-politikei buruz), baina herrialde horretako lan-merkatuari buruzko informazioa izan ohi dute, hau da, iritsi berrientzako lanik badagoen edo ez dagoen. Espainia helmugako herrialde moduan aukeratua izatearen berezitasuna garapen ekonomikoarekin azaltzen da.

Krisiaren aurreko urteetan (2007 aurretik) Espainia hazkunde ekonomiko handienetakoa izan zuen herrialdea izan zen. Hazkunde ekonomiko horren ezaugarri espezifikoak kontuan hartzen baditugu ikusiko dugu berezitasuna, izan ere, hazkunde bi sektoretan gertatu zen nagusiki: eraikuntzan eta turismoaren arretarekin lotutako zerbitzuen sektoreko hainbat adarretan. Bi sektore horietako eskulan-eskaera handia izan zen hazkundeko urte horietan. Eskulan-eskaera horrekin batera,

¹³ Bertan bizi diren pertsona atzerritarren datuak hartu ordez, errolatutakoen tasa hartzen da, egoera irregularrean daudenak ere kontuan hartuta atzerritarren errealitateari buruzko informazio zehatzagoa ematen baitu.

¹⁴ Beste atal batean aipatu bezala, EAEko biztanleria atzerritarren ehuneko % 5,4 da; Madril edo Katalunia eta beste autonomia-erkidego batzuetatik oso urrun dago oraindik ere; izan ere, horietan, biztanleria atzerritarren tasa % 14 baino handiagoa da.

¹⁵ Mundu mailan, Espainia izan da ELGAko herrialdeen artean atzerritarren hazkunde gehien jaso duen bigarren herrialdea. Baldintza absolutuetan Estatu Batuek soilik gainditu dute (immigrazio bikoitza jaso du), baina Espainiak baldintza erlatiboetan hura gainditu du (SOPEMI, 2000-2006 arteko datuak).

herrialdeko biztanleria aktiboaren kopurua hartu behar da kontuan: 1994. urtean 12.088.600 pertsona ziren lan egiten zutenak Espainian, eta 2001. urtean, berriz, kopuruak 15.800.000 pertsona arte egin zuen gora. Horien artean gehienak bertakoak ziren, baina urte horietan lanpostua zuten atzerritarren kopuruak ere gora egin zuen. Hurrengo urteetan, eraikuntzaren sektorea eta turismoarekin lotutako zerbitzuak hazi egin ziren eta horiekin batera, baita lanpostu kopurua ere. Pertsona aktiboen kopurua, ordea, ez zen erritmo berean hazi estatuan eta, beraz, herrialdean eskulan-eskaera sortu zen eta horrek zuzenean eragin zuen atzerritarrak lan bila etortzea.

2007. urtetik aurrera, egoera aldatzen hasi zen eta ondorioz, langabezia areagotu zen. Arazo horrek gizarte guztiari eragin dio, baina batez ere okerrera egin du etorkinen kolektiboaren artean (ikusi 2. taula). Horren arrazoa eraikuntzaren eta turismo-zerbitzuen sektoreen gainbehera izan da; izan ere, azken urteetan iritsitako atzerritar gehienek sektore horietan ziharduten. Eraikuntzaren sektorea bereziki erabakigarria izan da biztanleria etorkinaren langabeziaren hazkuntzaren. Miguel Pajaresek egindako azterketan –**“21. Immigrazioa eta lan-merkatua. 2009ko txostena”**– galdeketa egin zitzaion erakunde sozialetako arduradunek honela adierazi zuten: **“2008. urtean erakundeetan enplegua bilatzeko kontsultak egiteko agertzen ziren etorkinen kopurua nabarmen hazi zen eta nagusiki gizonak eta eraikuntzaren sektorekoak ziren”**. Esan beharra dago aurreko urteetan erakunde sozialetara emakume gehiagok jotzen zuela mota horretako kontsultak egiteko. 2008. urtean, **“espainiarrengan eragina nabarmena izan zen, baina biztanleriarekiko proportzioan, atzerritarrek jarraitu zuten gehien sufritu zutenak izaten”**¹⁶. Lanbabetu kopuruaren bilakaera 2. taulan argi ikusten da; espainiarren eta atzerritarren langabetu kopuruaren alderaketa haien biztanleria kopuruaren proportzioan egin behar da eta, hortaz, langabezia-tasetan jarri behar dugu arreta (2008. urteko datuak).

¹⁶ Miguel Pajares. *“21. Immigrazioa eta lan-merkatua. 2009ko txostena”*. Immigrazioaren Behatoki Iraunkorren dokumentuak. Lan eta Immigrazioeko Ministerioa.

2. taula. Langabetu kopuruaren bilakaera eta 2007. eta 2008. urteetako langabezia-tasa Espainian.

		Espainiako biztanleria, guztira	Espainiako langabezia-tasa %	Espainiako biztanleria	Espainiako biztanleriaren langabezia-tasa %	Atzerriko biztanleria	Atzerriko biztanleriaren langabezia-tasa %
2006ko laugarren hiruhilekoko langabetuak	Bi sexuetoakoak	1.810.600		1.467.300		343.300	
	Gizonezkoak	763.800		623.000		140.800	
	Emakumezkoak	1.046.800		844.200		202.600	
2007ko laugarren hiruhilekoko langabetuak	Bi sexuetoakoak	1.927.600		1.519.900		407.700	
	Gizonezkoak	879.200		676.400		202.800	
	Emakumezkoak	1.048.300		843.400		204.900	
2007ko gehikuntza	Bi sexuetoakoak	117.000		52.600		64.400	
	Gizonezkoak	115.400		53.400		62.000	
	Emakumezkoak	1.500		-800		2.300	
2008ko laugarren hiruhilekoko langabetuak	Bi sexuetoakoak	3.207.900	13,9	2.428.500	12,5	779.400	21,3
	Gizonezkoak	1.688.800	13,0	1.243.900	11,3	444.900	21,9
	Emakumezkoak	1.519.000	15,1	1.184.400	14,1	334.600	20,5
2008ko gehikuntza	Bi sexuetoakoak	1.280.300		908.600		371.700	
	Gizonezkoak	809.600		567.500		242.100	
	Emakumezkoak	470.700		341.000		129.700	

ITURRIA: "21. Immigrazioa eta lan-merkatua. 2009ko txostena". Biztanleria aktiboari buruzko galdeketatik abiatuta egindakoa. INE

EAEen immigrazioaren gaia nahiko fenomeno berria denez, nekez aurkituko ditugu atzerriko pertsona zaharrak lan bila. Izan ere, EAEko etorkinen % 84,3¹⁷ 45 urteik beherakoa dela ikusten dugu; horrek etorkinen kolektiboan aktibo¹⁸ eta lanean daudenen tasa adierazten digu¹⁹.

Biztanleria etorkinaren eta tokikoaren okupazio-tasak alderatzen baditugu, 3. taulan ikusiko dugu estatu mailan etorkinen kolektiboko pertsona aktiboaren tasa % 75,3 dela

¹⁷ 2006. urteko datuak. Immigrazioari buruzko EAEko II. planetik ateratako datuak (2007-2009).

¹⁸ **Biztanleria aktiboaren tasa:** lan egin dezaketen pertsonen ehunekoa da (lan egiteko adina dutenak: 15 eta 64 urte artean), lan egiten duten ala ez albo batera utzita.

¹⁹ **Biztanleria okupatuaren tasa:** lanpostua duten pertsonen ehunekoa da eta okupatutako pertsona kopuru totalaren (15 eta 64 urte artekoa) eta adin tarte horretako biztanleria kopuru totalaren arteko zatiketarik ateratzen da.

eta Espainiarren artean, berriz, biztanleriaren % 57 soilik dela aktiboa. Okupazio-tasari dagokionez, etorkinen % 66ak lana duela ikusiko dugu, espainiarren artean, aldiz, tasa hori jaitsi egiten da % 52,5 arte. Datu horiek, bestalde, aldatu egiten dira bi kolektiboetan langabeziari dagokionez; izan ere, etorkinen jarduera eta okupazio-tasak altuagoak diren arren, espainiarrek baino langabezia-tasa altuagoa dute: % 12,4 etorkinen kolektiboan, aldiz, espainiarren kolektiboan % 8, taula honek adierazten duen moduan.

3. taula. Espainian bertako eta atzerriko biztanleriaren lan-egoera.
2007ko 4. hiruhilekoa

	Espainiarrak	Atzerritarrak	Guztizkoa
Biztanleria aktiboa	19.109.700	3.294.700	22.404.400
Okupatutako biztanleria	17.589.900	2.887.000	20.476.900
Biztanleria langabetua	1.519.900	407.700	1.927.600
Biztanleria ez-aktiboa	14.413.300	1.079.000	15.492.300
16 urtetik gorako biztanleria	33.523.100	4.373.800	37.896.900
Jarduera-tasa	57.0	75.3	59.1
Okupazio-tasa	52.5	66.0	54.0
Langabezia-tasa	8.0	12.4	8.6

Iturria: IKUSPEGI (BAIko datuetatik abiatuta)

Egoera horretan, erakunde sozialen jarduera ezinbestekoa da prestakuntzaren eta enpleguaren alorrean, egoera gainditu eta etorkinen kolektiboan langabezia-tasa murrizteko. Bestalde, prestakuntza da langabezian daudenek lana topatzeko modurik eraginkorrena (bai etengabeko prestakuntzaren mailan, bai prestakuntza okupazionalaren mailan), batez ere, ekoizpenaren sektorean zihardutenen kasuan, sektore horretako eskaria ez baita aurreko urteetakoa bezain zabala (eraikuntzaren moduan). Prestakuntza, gainera, etorkinen “zereginetako” bat da egoera irregularrean dauden artean eta ezkutuko lana aurkitzen ez duten artean. Erakunde sozialen apustua prestakuntza globalaren aldekoa den arren (enpresetan praktikak egitea barne), egoera administratiBoak oztupoak jartzen ditu eta, beraz, prestakuntzaren alorrean lan espezifikoak egin behar da etorkinen kasuan eta bertako biztanleriak baino oztupo gehiago izaten dituzte.

3.3.2 Enpleguko/prestakuntzako jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa

EAEen etorkinekin enpleguaren eta prestakuntzaren alorrean diharduten erakunde sozial ugari dago, horregatik, talde horretarako erabilitako laneko metodologia desberdina izan da, bileraren eta lan kolektiboaren eremuan eraginkortasun eta efikazia handiagoa lortze aldera.

Taldea, era berean, pertsona etorkinaren lan-mundurako txertaketa-prozesu konplexua ikusteko eta gauzatzeko modu desberdinak zituzten bi taldetan banatu da. Erakunde batzuk eguneroko esku-hartze sozialarekin gehiago identifikatzen dira, enplegua bilatuz. Beste batzuk, aldiz, erronka handiagoen aurrean jartzen dira, hala nola jardueren bidezko lanaren aldaketa. Iritzi-aniztasun horren isla argia da jardunbide egokien hautaketan enplegu eta prestakuntzaren alorrean bertan laneako kategoriak bereizi behar izatea. Kategoria berriena, nolabait esateko, erakunde sozialak etorkinen eta errefuxiatuen kolektiboaren lan-mundurako txertaketan diharduten beste erakundeetatik bereizten dituen elementuan oinarritu dugu: **gure jarduerak zuzentzen dituen azken helburu transformatzailea**. Hori horrela, prestatzeko eta enplegua bilatzeko zaugarriak diren kolektiboek “laguntzera mugatzeak” ekar dezakeen asistentzialismoa saihestu nahi dugu. Hala ere, enpresariarientsibilizazioaren bidez edo salaketaren bidez lan-merkatua diskriminaziorik gabeko merkatu bilakatu nahi dugu. Bilatzen dugun merkatu horretan, etorkin eta errefuxiatuek euren kabuz, modu autonomo eta librean, bilatu ahal izango dute enplegua, jatorri etniko, sinesmen erlijioso edo nazionaltasunaren inguruko arazoien ondoriozko diskriminazioaren biktimak izan gabe.

Proiektuan parte hartu duten erakundeek eta hain konplexua den hausnarketa-eremu horretan jardunbide egokien eta ekimenen bila dabiltzanek behar duten erantzuna eta esleitutako kategoriarekiko identifikazioa topatzea espero dugu.

Lan-taldearen helburua, gainerakoetan bezala, EAEen etorkinekin lotutako prestakuntzaren eta enpleguaren alorrean garatutako esperientziak ezagutzea eta aztertzea izan da. Era berean, atzerritarrek beste edonoren baldintza berdinetan enplegua eskuratzeko izandako eraginagatik jardunbide egokitzat hartzen diren ekimenak zein diren finkatu du.

Horretarako, taldeak prestakuntza eta enpleguaren gaietarako jardunbide egokiak aukeratzeko hainbat **irizpide garrantzitsu** hautatu ditu. Hausnarketa horretatik ondorioztatzen da enpleguaren eta prestakuntzaren alorreko jardunbide egokiak ezaugarri hauek betetzen dituela:

- Ekintza berritzailetzat jotzen da ordura arte egindakotik bereizten dena.
- Arazo edo aukera identifikatu eta horren aurrean irtenbidea emateko proposatu da.
- Esku-hartzean aldaketa eragiten ahalegintzen da, eskaera sozial zehatzen edota desberdintasun sozialeko edo injustizia sozialeko egoeren aurrean erantzun egokia emanez.
- Aldez aurretik ebaluatu behar da eta kontuan hartu behar dira emaitza arrakastatsuak; planifikazioa lortutako emaitzetara egokitu behar da.
- Eredu gisa balio die beste erakundeei eta haien errealitatera transferitu edo egokitu daiteke.

Hemen azaltzen dugun atalean hauek jasotzen dira:

- a) Hausnarketaren ondorioz, hautaketa-irizpideen arabera prestakuntzaren eta enpleguaren alorreko **jardunbide egokitzat** jo diren ekimenak
- b) Ekimena hobetzeko haren hautaketan nabarmentzen diren alderdiak. Bigarren, prestakuntzaren eta enpleguaren alorrean, jardunbide egokietan jasotzen ez diren arren, taldeak nabarmendutako eta sustatu daitezkeen hainbat alderdi dituzten ekimenak hartu dira kontuan. **“Nabarmendu beharreko ekimenak”** koadroan aurkituko dugu azalpena.

3.3.2.1 Enpleguko/prestakuntzako jardunbide egokiak

ESPERIENTZIAREN IZENA:	ZUBIAK ERAIKITZEN. Kulturarteko artekaritza sozialeko zerbitzua gizarte eta lanerako alorrean
KATEGORIA:	KULTURARTEKO ARTEKARITZA GIZARTE ETA LANERAKO ALORREAN
ERAKUNDEA:	GAZTAROA – SARTU erakundea
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	2005-2007 artean: BBK Gizarte Ekintza, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaiak.
DESKRIBAPENA:	<p>Gizarte eta lanaren alorrean kulturarteko gizarte-artekaritzako zerbitzua honela definitzen da: “gizarte eta lanerako txertaketa-agenteei eta bertako eta atzerriko etorkinei edo jatorria atzerrian dutenei zuzendutako baliabide soziala; komunikazio, harreman, bizikidetzeta eta gatazken kudeaketa-prozesuak kulturarteko ikuspegitik garatzen laguntzera bideratutakoa. Xede horretarako, aukera-berdintasunaren mesedetan gizartean eta lanean txertatzeko zerbitzuak eta programak, denen eskuragarri izan daitezzen bultzatzen du, enpresak eta lan-inguruneak barne. Era berean, gatazken prebentziorako lan egiten du, eta gatazka irekietan esku-hartzen du kudeaketa egokia bideratzeko eta kulturartekotasuna sustatzeko”.</p> <p>Zerbitzua askotariko eragileen elkarrenginaren hobekuntzan oinarritzen da. Zerbitzuak eta lan-inguruneak denen eskuragarri izateko hobetzea du xede.</p> <p>Hauak dira zerbitzuak dituen helburuen oinarriak: beste “pertsonek”, beste kulturen ezagutza; bizikidetzeta oneko giroa sortzea; zerbitzu eta programa irrisgarrien diseinuan laguntzea; kulturartekotasunerako sentibiltasunaren gaitasunaren hobekuntza; lan-sareak koordinatzeko eta sortzeko laguntza.</p> <p>Eskaintzen diren zerbitzuak hiru esku-hartze edo jarduera mailatan sar daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pertsone arteko maila. - Talde eta komunitate maila (pertsonek eta profesional taldeak, prestakuntza okupazional arautua, lanbide-hastapenerako ikastegiak...; profesionalentzako prestakuntza, dinamizazioa, artekaritza komunitarioa) - Lana erakundeekin (kulturarteko ikuspegia hartzea, profesionalentzako laguntza)

<p>ENPLEGUAREN / PRESTAKUNTZA- REN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>ZUBIAK ERAIKITZEN zerbitzua jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Programa berritzailea da. - Erantzukizuna, boluntariora eta elkarrizketa balio gisa sustatzen ditu. - Herritarren bizikidetzaren eta komunitate integratzaileen eraikuntzaren alde egiten du lan. - Alderdien arteko harremanetan zuzenean eragiten du. <ul style="list-style-type: none"> - Erakundeen arteko koordinazioa eta sareko lana sustatzen eta indartzen du. - Herritartasuna sustatzen du, pertsonen jabetza maila bultzatzen baitu. Alderdiei zuzeneko partaidetza ematen zaie gatazken ebazpenean. - Profesionalei esku hartzeko elementu gakoak eskaintzen dizkie, gure inguruko errealitate sozialaren laguntza- eta azterketa-tresna bilakatuz.
<p>INPAKTUA</p>	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektua laguntza instituzionalen mendeakoa da. - Esku-hartzearen inpartzialtasuna mantentzeko zailtasuna dago; izan ere, zenbait kasutan instituzioa alderdietako bat izan daiteke. - Une honetan proiektua ez da funtzionatzen ari, diru-laguntzaren, hitzarmenaren edo finantziazioaren zain baitago. <ul style="list-style-type: none"> - Publikoki aurkeztu eta zabaldu da. Hedapen horrek gizarte eta lanerako kulturartekotasunari buruz sentisibiltzatzeko balio izan du. - Profesionalek eta erabiltzaileek artean eta hainbat erabiltzaileek artean finkatzen den harremanean zuzenean eragin duen zerbitzua da, horrela, esku-hartze maila guztietako zeharkako ardatz bihurtu da. - Pertsonen, profesionalen, enplegatzaileen eta erakundeen helburuak betetzen lagundu du, komunikazioa eta harremanak hobetu baititu. - Pertsonen, profesionalen, enplegatzaileen eta erakundeen asmoak egokitzen lagundu du, horretarako, errealitate berriaren eraikeeta bateratu eta kolektiboaren bidez elkarren arteko ezagutza sustatuz.

ESPERIENTZIAREN IZENA:	Enpresa-ehunaren sentsibilizazioa kulturamiztasunaren kudeaketarako proposamenetarik eta diskriminazio-eza bermatzeko proiektuetatik abiatuta.
KATEGORIA:	LAN MERKATUAREN ARTEKARITZA ETA ERALDAKETA
ERAKUNDEA:	CEAR Euskadi
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	Finantziario dibertsifikatu publiko eta pribatua.
DESKRIBAPENA:	<p>CEAR Euskadi erakundeko prestakunta eta enpleguaren alorrak diskriminaziorik gabeko lan-merkatuaren alde egiten du eta atzerritarren gizarterako eta lanerako txertaketa bultzatzeko lanean dihardu.</p> <p>Hau da helburu nagusia: etorkinak eta errefuxiatuak lan-merkatuan sartuz gizarteratzea, horrela, gizarteko partaidetza bermatzen da.</p> <p>Enpresekin bi ildo nagusitatik egiten da lan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzea enpresekin: <ul style="list-style-type: none"> • Lan-eskaintzen azterketa • Eskaintzen bilketa • Enplegu-poltsaren kudeaketa - Lan-merkatuaren eraldaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Ikerketak • Salaketa- eta sentsibilizazio-ekintzak. • Ar gitalpenak (laneko diskriminazioaren aurkako gomendioak...) • Enpresentzako prestakuntza (kulturaliztasuna kudeatzeko aholkularitza, laneko diskriminazioaren aurkako enpresa/langile gida...) <p>Kulturalki antizak diren giza baliabideen kudeaketa etikorako oinarriak finkatzean datza.</p>

ENPLEGUAREN / PRESTAKUNTZA- REN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK	<p>CEAR Euskadi programa jardumbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eremuan 10 urteko esperientzia zabala dute. - EInek eta Administrazio Publikoek aitortutako lana da. - Maila globaleko sentibilizazio-lanak (enpresariak, langileak, sindikatuak...) zeharkakotasun globala gertatzea eta sentibilizazioa eraginkorragoa izatea eta alor gehiagotara iristea eragiten du. - Finantziario dibertsifikatuari esker ekonomikoki independenteak dira. <p>Jardumbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dute hitzartutako finantziatorik. - Egoera ekonomikoaren mende daude (egindako kontaktu kopuruaren arabera)
INPAKTUA	<p>Gizarteko eta laneko txertaketa-prozesuak sustatzen eta lan-merkatua eraldatzen eremuan izandako esperientziak aukera hauek ekarri dizkio:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etorrin eta errefuxiatuez osatutako lan-poltsa gero eta handiagoa izatea. 2008. urtean CEAR-Euskadiko prestakuntza eta enpleguaren alorra 1.057 pertsonaz arduratu da, hau da, erakundeak arreta emandako guztien % 29,59 (3.572 pertsona). • Gero eta enpresa-poltsa handiagoa izatea kontratatzeko eta kanpainetara atxikitzeko. <p>- Enpresentzako langileen aukeraketa eta lege-gaietako aholkularitza-prozesuak egiten ditu. Erakundeko lan-poltsan bat egiten duten eskainitako eta eskatutako profilen aldagai kulturalak kontuan hartzen dira. Adibidea: 2008. urtean 309 enpresatan esku hartu zen eta eremutik kudeatutako enplegu-eskaintzetatik eratorritako 400 pertsonaren artekaritza egin zen.</p>

ESPERIENTZIAREN IZENA:	ENPRESA ARRUNTAREN ETA ERAKUNDE SOZIALAREN ARTEKO HITZARMENA	
KATEGORIA:	LAN TXERTAKETARAKO ENPRESAK LEHENENGO LAN ESPERIENTZIA MODUAN	
ENPRESA ETA ERAKUNDEA:	ERAKUS – GOIZTIRI ELKARTEA	EUSKAL POSTALRED SL EUSKAL POSTAL MAILING SL – A. GAZTAROA SARTU / BANAKETAREN PRESTAKUNTZARAKO ELKARTEA
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	Eusko Jaurlaritza – Gizarteratze Salla ERAKUS enpresa - Barne-arkitektura GOIZTIRI elkarte BBK	Eusko Jaurlaritza Euskal Postalred SL enpresa SARTU federazioa Banaketaren Prestakuntzarako Elkartea

Ekimena 2005. urtean BBKren sustapenarekin sortu zen. GOIZTIRI elkarte eta ERAKUS enpresa harremanetan jarri zituen eta lehen egitekoa eman zien: azoka eta festetan erabiltzen diren txosnen zati bat diseinatzea eta muntatzea.

ERAKUS enpresak alderdi tekniko eta teknologikoa ekarriko dio enpresa berriari eta GOIZTIRI elkarteak, berriz, kontratatutako pertsonen laguntza eta hezkuntza mailako jarraipena.

Ekimenaren helburua zailtasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzea da, haien egoera legeztatuko duen lan-eskaintzaren bidez (etorkinen kasuan) eta merkatu arruntean sartzea bultzatuko duen lan-esperientzia emanez; horrela, prestakuntza-jarduera osagarriak bermatuko dituen hezkuntza-laguntza eskaintzen zaie eta gizartearen txertatzeko prozesuei modu integralean heltzen zaie (osasuna, familia, etxebizitza...).

Hitzarmenaren hasieratik finkatzen da 9 pertsona kontratatzea eta horietatik 6 gizarteratze-prozesuan egotea. Lehenitasunez etorkinak hartuko dira, gehienez urtebetean (lanerako baimena eskuratzeko laguntzeko). Hitzarmenean, era berean, pertsona bakoitzak enpresaren kontura prestakuntzarako ordaindutako 100 ordu izateko finkatzen da.

Ordutegiak eta soldatak enpresa atxikitako hitzarmenean finkatuta datoz: Zuraren eta artelazkiaren industriaren hitzarmena.

Ekimena 2007. urtean sortu zen, jarduera-eremua (enpresa arruntarena) lau udalerriara zabaltzeko xedearekin, txertaketa-enpresa sortzearekin batera, horrela, txertaketarako postuak sortuz udalerri bakoitzeko gizarte-zerbitzuetatik eratorritakoentzat.

Enpresa korrespondentzia pribatuaren banaketan espezializatuta dago, eta lanerako txertaketa planteatutako jarduerari lotutako oinarrizko helburutzat hartzen da, eta erakunde sustatzaileen filosofia osatzen du.

Txertaketa-enpresa Euskal Postalred SL da eta honela osatuta dago: % 49 Euskaikorre Postal Mailing SL, % 33 Gaztaroa - Sartu erakundea, % 18 Banaketaren Prestakuntzarako Elkarteak, Gaztaroa - Sartu erakundea enpresako akziodunetako bat da eta baita administratzaio-organoeetako bat ere, kasu horretan zuzendaritzakoa. Gainera, txertaketa-prozesuan dauden pertsonen laguntzeko prozesuen arduraduna da (metodologia: laguntza-eskuliurua txertaketa-enpresetan, Lamegi).

Ekimena SL moduan legeztatutako txertaketa-enpresa gisa antolatuta dago; administratzaio-kontseiluan Gaztaroa - Sartu erakundeak du lehendakari-tza. Estatuetsuetan definituta dago helburu soziala eta iraupena, hasiera batean, mugagabea da. "Enpresa arrunta" arduratzen da kudeaketaz, eta txertaketa-prozesuan dauden pertsonen gizarteratze- eta laneratze-prozesuez Gaztaroa - Sartu erakundea arduratzen da (2 hezitzaile izendatuz).

DESKRIBAPENA:

<p>ENPLEGUAREN / PRESTAKUNTZA-REN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>ERAKUS - GOIZTIRI hitzarmena jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpresak ordaindutako 100 ordu eskaintzen ditu prestakuntzarako kontratuaren barruan. - Pertsonak lan-kontratua duen heinean, erakunde sozialak jarraipen sozioedukatiboa eskainiko dio. - Urtebeteko lan-kontraturako aukera eskaintzen da eta aldi berean laneko esperientzia gisa balio dezake enpresaren arretetako langileen hautaketa-prozesuetan. Kontratu horrek etorkinaren hainbat egoera legeztatze balio dezake. 	<p>EUSKAL POSTAL MAILING SL - GAZTAROA SARTU / BANAKETAREN PRESTAKUNTZARAKO ELKARTEA hitzarmena jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontratutako pertsona guztien % 60,5 txertaketarako lanpostuak dira. - Eskaintako txertaketa-lanpostuen % 17,2 etorkinek hartzen dute. EAeko egungo etorkinaren ehuneko % 5,4 deinez, enpresako lanpostu gehienak etorkinrentzako direla ondorioztatzen da. - Kide diren erakundeek enpresaren jarduera-sektorean ekarpena egiten dute esperientziari eta egiten jakiteari eta haren eguneroko kudeaketari dagokionez. Jarduerak txertaketarako lanpostuak sortzen laguntzen du.
	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizezkoak soilik kontratatzen dira. Emakumeei ez zaie estaldurarik ematen. - Okupazioak gizarterako eta lanerako gaitasunak eskuratu laguntzen du, ez prestakuntza teknikoa. <p>Enpresako bezero bakarra: BBK</p>	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Txertaketarako enpresen ezaugarriei buruz arduradunei ematen zaion prestakuntza eta informazioa zaindu eta sustatu egin behar litzateke, txertaketa-prozesuan dauden pertsonen laguntzeko prozesuetako koordinazio mailak hobetze aldera.
<p>INPAKTUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmenaren onura 36 pertsonak jaso dute guztira 2005. urteaz geroztik; horietatik % 90 etorkinak ziren. - Hartutako pertsonen % 85 lan-merkatu arruntara irteten da. - Enpresaren emaitza positiboa da eta enpresako etekinaren zati bat nekazaritzako ekoizpenaren eremuko nazioarteko lankidetzako proiektuan inbertitzen ari da (Tindoufeko saharar kanpamentuetako baratzak). 	<ul style="list-style-type: none"> - 2007. urteaz geroztik 65 pertsonak izan dute ekimenaz etekina ateratzeko aukera. - Txertaketa-prozesu gehienek hiru urte irauten dute, hortaz, 2010. urtera arte ez da lan-merkatu arruntoko enpleguetara irtendako pertsonen daturik lortuko.

ESPERIENTZIAREN IZENA:	ELKARGUNE ETA BITARTEKOTZA AUZOLAN PROGRAMAN
KATEGORIA:	ERANTZUNA / LANTZE INTEGRALA
ERAKUNDEA:	GETXOKO UDALA
FINANTZIAZIOA/LAGUNTZA:	Getxoko Udala, Eusko Jaurlaritza (Immigrazio Zuzendaritza; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila; Gizarteratze Zuzendaritza)
DESKRIBAPENA:	<p>Getxoko Udalak herrian gauzatutako bi programa dira.</p> <p>ELKARGUNE Getxoko etorkinentzako abegi programa da; Getxoko udalaren etorkinen harrera, integrazio eta kulturarteko bizikidetzaren konpromisoa adierazten du. Herrira iritsitako pertsonen hain aukeretara egokitutako harrera-ibilbideak garatzeko aukera ematen dieten hainbat programa. Europako Batzordeak proposatutako lerroetan gizartearen onura ekartzen duten hainbat ekimen garatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Udal komunikazioaren egokitzapena gizarte askotariko eta kulturantzaren eskakizunetara (www.kaixogetxo.net; kon-tsultak) - Atzerriarren intereseko gaiekin lotutako aldiari behingo (hileko) informazio-saioak: atzerriartasunaren marko juri-dikoa, lan aurreko saioak, laneko erregulazioaren ezagutza. - Getxon Bizi programa Munduko Medikuek Elkartearekin batera. Prestakuntza, aisia, ingurumenaren ezagutza eta harreraren garrantza konbinatzen dituzte eta atzerriar jatorriko bizilagunen ongizatea eta errotze-prozesuan laguntzea dute xede. - Emakume etorkinentzako topaketa espezifikokoak. - Abegi linguistikoa euskaraz. <p>Getxoko Udalaren ustetan, lehen harrerak garrantzi handia du etorkinen hiriaritze-prozesuetan; izan ere, lehen harrera horrek migrazioaren ondoriozko herstura eta estresa murrizten laguntzen du, eta gizarteratze-prozesuei eragin diezaieketen diskriminazio-egoerak saihesten dira.</p> <p>AUZOL-ANeko bitartekotza-programak bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden langabeak gizartearen eta lanean txer-tatzeko aukerak hobetzea du xede. horretarako, prestakuntza-prozesua laneko praktika errealekin konbinatuz²⁰.</p>

²⁰ Eusko Jaurlaritzako 2002ko uztailaren 30eko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 199/2002 Dekretuaren bidez araututa dator.

<p>ENPLEGUAREN / PRESTAKUNTZA- REN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>Udaleko enplegu-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek atzerritartasuneko lege organikoaren ikuspuntutik mugak dituzten espedienteak dituzten erabiltzaile atzerritarren kasuak atzeman behar dituzte, prestakuntza- eta enplegu-jardueretan parte hartzeko eskaeren bidez, eta programaren hartzaile izan daitezkeela kontuan hartu behar da halen gizarteko eta laneko txertaketa eta ondorengo enplegarritasuna hobetze aldera. Programaz balia daitezkeen erabiltzaileek egoera hauetako batean egon behar dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hasierako egoitza-baimenaren eskaera-kasua²¹. - Aldaketa-eskaeraren kasua²². - Berritze-kasuak²³. - Lan egiteko baimenaren eskaera-kasua²⁴. <p>Prestakuntza- eta enplegu-programekin batera Atzerritartasunaren Legearekin lotutako oztopo administratiboak gaindi ditzakeen ekimena da. Oztopo horiek babesutako lan-markoan enplegarritasun-profil egokia duen atzerritarren kon-tratazioa zaildu dezakete.</p> <p>ELKARGUNE eta AUZOLANeko bitartekotza jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beste administrazio publikoetara estrapola daitezkeen ekimenak dira. - Aldi berean, erakunde sozialek hainbat modutara parte har dezakete eta zerbitzuen arteko koordinazioa gertatzen da. - Administrazio publikotik egiten zaie lehen harrera udalerrian bizi diren atzerritarrei. - AUZOLAN programak duen abantailerako bat unibertsala izatea da, hau da, etorkinentzako nahiz tokikointzako erabil daiteke. - AUZOLAN programak erabiltzen duen ezaugarri nagusien artean enplegarritasun-irizpidearen erabilera aipa daite- ke. <p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzeko dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - AUZOLAN programari dagokionez, atzemandako zailtasun nagusia ebazpen-prozesuak laburrak izateko beharra da; izan ere, jendeak erantzuna lehenbailehen izan behar du eta prozesua errealitatean ebazpenaren zain luzatzen da.
---	---

²¹ Egoitza froga dezaketen, baina irregularitasun administraitiboko egoeran dauden pertsonak.

²² Familia-elkartzearen ondorioz egoitza-baimena duten eta lan egiteko baimena mugatuta duten pertsonak. Edo egoitza eta hasierakoa ez den norberaren kabuz lan egiteko baimena duten eta besteren kontura pasatu nahi duten pertsonak. Espainiar adingabeakoen arbasoak diren atzerritarrek, bestela.

²³ Berritze-egoitza- eta lan-baimena izan eta aldaketarako kotizazio-baldintzak beteta (6 hila bete edo 3 salbuespenez) lan-eskaintzarik ez dutenak.

²⁴ Aldi baterako murriztutako askatasunak dituzten komunitateen kasua (Bulgaria eta Errumania, 2009ko abenduaren 31).

– Informazio-saioek eta tailerrek harrera ona dute eta atzerritarrek parte hartzen dute.

AUZOLAN bitartekotza-programari dagokionez:

Bitartekotzaren ikuspegiak:

2009ko martxoaren 6an, Getxoko Udalak 10 pertsona kontratatu zituen garbiketa-lanak egiteko. Espediente guztietatik 5 bitartekotza egin dira Bizkaiko Gobernuaren Ordezkariordeztarekin, Getxoko Udalak formulatutako eskaintzan:

- Finkatze sozialeko 3 kasu
- Espainiar adingabekoaren arbasoen txartel-aldaketa kasu bat
- Hasierako mugatutako balmenaren berritze-kasu bat

2008. urteko azken deialdian 8 pertsona kontratatu ziren mantentze-lanetarako. Espediente guztietatik 2 eskaintza-kudeaketa egin dira ordezkariordeztan:

- Finkatze sozialeko 2 kasu

Enpleguaren ikuspegiak:

2008ko ekitaldiko programetako parte-hartzaileen jarraipena egin ondoren, emaitza hauek ditugu:

- Garbiketa-taldeko 5 pertsona kontratatuta sektore berean (zorizik hartu zuten parte)
- Mantentze-lanetako taldeko 2 pertsona kontratatuta sektore berean (zorizik hartu zuten parte)

ESPERIENTZIAREN IZENA:	LANBERRI PROGRAMA
KATEGORIA:	ERANTZUNA / LANTZE INTEGRALA
ERAKUNDEA:	LANBERRI (IBAIA Federazioa osatzen du, Susterra eta Bidegintza elkarteekin batera)
FINANTZIAZIOA:	Eusko Jaurlaritza; Bizkaiko Aldundia; Bilboko Udala; Bilbo – Lanekintza, Europako Gizarte Funtsa; Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako plan berezia; BBK; Carmen Gandarias fundazioa.
DESKRIBAPENA:	<p>LANBERRI programa gizarte-zaurkortasun handiko egoeran dauden 18-30 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Printzipioz Bilboko V. Barrutian kokatzen du jardueria nagusia.</p> <p>LANBERRI programaren jarduera elkarrekin konektatutako bi eremutan banatzen da. Lehenik eta behin, prestakuntza-eremua dago eta, bigarren, txertaketarako enpresak. Gazteak Lanberrri programan sartzean jarraitzen duten ibilbideak gutxi gorabehera antzeko eskema jarraitzen du:</p> <p>Gazteak aldez aurreko kaleko heziketan detektatzen dira eta, ondoren, harrera eta diagnosis egiten zaie haien beharretara gehien egokitzen den prestakuntza eskaintzeko. Pertsona bakoitzaren beharretara egokitueta, lehenik eta behin, oinarritzko gaitasunak eta kualifikazioa eskaini daiteke. Lanberrri programak lan aurreko hastapen-talerra du, eta bertan, oinarritzko ohiturak eta gaitasunak lantzen dira eta hainbat lanbide oso oinarrian ezagutzen dira; bestalde, lanbide-talerrak ditu (igeltserotza, pertsonen zaintza, ingurumeneko langileak). Bigarren, programan parte hartzen duten pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza ere eskaintzen da: oinarritzko prestakuntza, gidari gazteak proiektua, lanbide- eta hastapen-talerrerako programekin bat egiten duten zeharkako gaitasunen prestakuntza. Prozesu horretan guztian, gehienez bi urte irauten dituena, banakako lan tekniko eta hezigarria gauzatzen da banakako txertaketa-ibilbideen metodo-logiarren bidez.</p> <p>Azkenik, Lanberrri programak txertaketarako enpresa du: Alkar Biziz, SL. sozietatea gazteen eta komunitatearen beharrei erantzuna emateko sortu zen:</p> <ol style="list-style-type: none"> Prestakuntza-lanaren prozesua amaitu ondoren, gizarteko eta laneko txertaketa bultzatzen dute, laneko esperientziaren bidez, horrek araututako enplegua eskuratzeko aukera emango baitu. Prestakuntza eta laneko prozesuak seme-alaben arretarekin bat egiteko aukera ematen du. Baliabide urriak dituzten eta bakardade-egoeran dauden pertsona adinduen zaintza.

<p>ENPLEGUAREN / PRESTAKUNTZA- REN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>LANBERRI programa jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektua integraltzat hartzen da, zir-kulua osatzen du eta txertaketarako enpresaren prestakuntza-urratsa lan-merkatu arruntara pasatu aurretik ematen da. - Banakako prestakuntza-ibilbideak egiten dituzte. a <p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diru-laguntzak jasotzen dituzte lana garatzeko. - Lanberri programako eremuak (kalea, harrera, diagnosis, hastapen-tailerra, lanbide-tailerra, laneko tailerra) 2004. eta 2009. urteen artean landu dira, eta guztira 1.112 pertsona hartu dituzte. - 2008-2009 aldian 397 pertsonari eman zitzaizen arreta. Horietatik % 40,97 atzerriarrak ziren, eta horietatik % 68,57k ez zuten baimenik (lanekoa edo egoitzakoa). - 2008-2009 aldiko lan-poltsako kudeaketen (lan-eskaintzen kudeaketa Lanberrin) % 75 kontratuarekin amaitu da. <p>Jarraipenaren datuak urteka:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2000 eta 2006 artean lanbide-tailerretan parte hartu zutenen % 33,33k kontratua zuten jarraipena egin zenean. - 2006-2008 urteen artean Lanberriko txertaketa-enpresetan euren prozesua amaitu zuten 12 pertsonatik % 59k enpresa arruntetan egiten du lan.
<p>INPAKTUA</p>	

3.3.2.2 Nabarmendu beharreko ekimenak

KATEGORIA	NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK	ERAKUNDEAK
<p>Prestakuntzako ekimenak</p>	<p>FAMILIA BATERATZEA: Erakundeetan parte-hartzaileen prestakuntza-prozesuekin bat etortzeko erabiltzen diren modu desberdinak (umezainak txertatzeko enpresaren kontratazioa, haurren zaintza txertatzeko enpresaren sorrera, seme-alabak zaintzeko parte-hartzaileen arteko sare sozialak eraketa)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntzarako eta beharrezkoak diren bestelako prestakuntza-prozesuekin lotzeko TEKNOLOGIA BERRIEN aldeko apustua. 	<p>Bizkaiko Emakumeen Sustapenerako Zentroa LANBERRI EUSKARRI</p>
<p>Enplegurako orientazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - “Enplegurako orientazioan generoaren ikuspegia” balioesten da, enplegu desberdinen estereotipoak apurtzera zuzendutakoa, eta generozko aurreritziak apurtuko dituzten lan-aukerak eskaintzen dituena. 	<p>BAGABILTZA</p>
<p>Txertaketako enpresak lehen lan-esperientzia moduan</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuen eta onuradunen beharrek in lotutako txertaketako enpresen (edo zerbitzuen) sorrera nabarmentzen da. 	<p>Alkar Biziz (LANBERRI) txertaketako enpresaren Kuttun (umezain) zerbitzua</p>
<p>Erantzuna / Lantze integrala</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Laneko eremuan egoitza eta aterpea eskatzen dutenei eskaintzen zaie arreta integrala nabarmentzen da. 	<p>CEAR Euskadi</p>

3.4 finantza produktuetarako irisgarritasun eremua

3.4.1 Errealitatearen azterketa

“Toki batetik bestera gertatzen den biztanleriaren lekualdaketa eta horrekin haien bizilekuaren aldaketa dakarren” prozesutzat ulertzen da migrazioa. Pertsonak emigratzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke, baina arrazoi sozio-ekonomikoak izan ohi dira funtsezkoenak giza migrazio-prozesu gehienetan. Hain zuzen, garapen sozio-ekonomikoaren eta immigrazioaren arteko lotura zuzena dagoela uste da eta, beraz, baita azpigarapenaren eta emigrazioaren artean ere. Emigratzen duten gehienek arrazoi ekonomikoak direla eta egiten dute, bizitza hobearen bila, diru-sarrera gehiago emango dizkien eta hezkuntza, osasun, ondasun material edo norberarentzako eta jatorrizko herrialdean geratzen den familiarentzako (oro har, bidalketen bidez) azpiegitura maila altuagoa izatea ahalbidetuko dien bitartekoen bila²⁵.

Esku artean dugun gaiari dagokionez, atzerriarren finantza-merkatuko produktuetarako sarbidean hainbat produktu aurkitzen ditugu, hala nola aurrezki-kontuak (edo bestelako bankuko kontuak) eta kredituetarako edo hipoteketarako irisgarritasuna. Hala ere, diruaren bidalketa da etorkinek hartzen duten lehen produktuetako bat; izan ere, emigrazio ekonomikoaren aurrean egongo ginateke eta, beraz, jatorrizko herrialdean duten familiari dirua igortzen diote. Igorpena hainbat lekutatik egiten da, formalak eta informalak; banku-erakundeetatik lehenengo kasuan, eta mintzalekuetatik bigarreanean, biek eraginkortasun bera dute.

Igorpenak egiteko eskakizunak askotarikoak dira, nondik igortzen den kontuan hartuta, baina, oro har, igorpen gastuetarako ehuneko bat eskatzen da, eta komisioa, igorpenaren kudeaketarako. Hainbat banku-erakundetan hitzarmenak izan ohi dituzte jatorrizko banku-erakundeekin igorpen segurua bermatze aldera; bestalde, beharpenak edo erraztasunak ere eskaintzen zaizkie bezeroei, erakundeak eskaintzen diren beste finantza-produktuetako bezero diren heinean, betiere (adibidez: aurrezki-kontuaren, kreditu-txartelaren... titular izatea).

²⁵ Familia-bidalketak etorkinek jatorrizko herrialdeetara igorritako diru kopuruak dira.

Etorkinek jatorrizko herrialdera egindako igorpenen gaiarekin oso lotutako kontzeptua **kogarapena** da; lehen definizioa Sami Naïr-ek eman zuen²⁶. Kogarapena ideia honetan oinarritzen da: gutxien garatutako herrialdeetatik emigratzen dutenek aktiboki lagun dezakete, ekonomia, gizarte eta kultur gaietan, jatorrizko komunitateen garapenean eta harrera egin dieten gizarteetan. Kogarapenaren arabera, beraz, migrazioek garapenerako aukera ematen dute eta, batez ere, partekatutako garapenerako (terminoak dioen moduan).

Jatorrizko herrialdeetarako igorpenak EAEn gutxi gorabehera aseta dute etorkinek, albo batera utzita egun ez dela ezagutzen igorpen kopuru erreala eta zer herrialdeetara igortzen den. Hausnarketan interesgarritzat jo dugu bereziki igorpen kopuru errealaren datuak ezagutzea, beharrezkoa baita kogarapeneko ekintza eta proiektuen aurreikuspena egiteko. Horregatik eta kapitalak zuritzea saihesteko eta igorpenak helmugara seguru hel daitezzen, **igorpenak banku bidez egitearen alde egiten dugu**.

Kogarapenarekin lotuta, beharrezko jotzen da **jatorrizko herrialdeetako garapenaren lankidetzarako** EAEn egiten diren ekimenen **eta autonomia-erkidegoan immigrazioarekin egiten den lana koordinatzea**.

Bestelako finantza-produktuetarako irisgarritasunari dagokionez, ikusten dugu horietarako irisgarritasuna ez dela etorkinei soilik eragiten dien arazoa, baina egia da kolektibo horrek askotan zailtasun gehiago topatzen dituela hainbat arrazoiren ondorioz: a) kolektibo gaztea da (biztanleriaren % 84,3²⁷ berrogeita bost urtetik beherakoa da eta lan egiteko adinean dago), b) lan egoera kasu askotan ezegonkorra da eta c) ez dute sare sozial handirik finantza-produktua eskatzean abal moduan jokatzeko, hala nola negozioa hasteko kreditua edo etxebizitza erosteko hipoteka-kreditua eskatzeko. Hausnarketatik abalen funtza sortzeko aukera ondorioztatzen da, modu horretan, etorkinei produktu mota horretara heltzea errazteko; dena den hori abian jartzeko zailtasuna ere balioetsi da.

²⁶ Paris VIII Unibertsitatean Zientzia Politikoetako irakaslea. Frantziako barne-ministroaren aholkularia, Europako diputatua eta Kogarapeneko ministro ordezkaria izan da, besteen artean. Sami Naïr *"Migrazio fluxuei lotutako kogarapen-politikaren balantzeari eta orientazioari buruzko txostena (1997)"* lanaren egilea da. Txosten horretan kogarapenerako migrazio-fluxuen kudeaketari lotuta marko teorikoa, helburu espezifikoak eta jarduera-metodologia proposatzen ditu.

²⁷ Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioari buruzko II. Euskal Planeko datuen arabera (2007-2009)

3.4.2 Finantza produktueterako irisgarritasuneko jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa

FINANTZA PRODUKTUETARAKO IRISGARRITASUN taldearen helburu nagusia etorkinekin esku hartzeko eremuan finantza-merkatuko produktuetera iristeko ekimenak zein diren ezagutzea eta eremu horretan jardunbide egokirik baden balioestea izan da.

Hausnarketatik ondorioztatzen da finantza-merkatua etorkinen kolektiboaren beharretatik eta baldintzetatik urrun eta egokitu gabe dagoen zerbait dela, etorkinek ez baitute sare sozialik, ez abalak izateko aukerarik, enplegu-kolokatasuna dute, finantzako termino, izapide eta formularioen ezagutza-falta eta abar, eta ondorioz, aukerak ukatzen zaizkie, besteak beste, alokairueterako eta jabetzako etxebizitzetarako bankuko abalak, maileguak...

Bestalde, etorkinen erakundeak ez dira kredituak eta abar lortzeko bezain indartsuak, ez baitute abalik eta, hortaz, apenas egin ditzaketen aldarrikapenak kolektibo moduan.

Azkenik, kontuan hartzen baditugu jardunbide egokien aukeraketan hasieran adostutako irizpideak eta aintzat hartzen badugu "EAEn bizi diren etorkinen **harrera- eta gizarteratze**-bideak diseinatu eta balioetsi" proiektuaren helburu nagusia, finantza-produktueterako sarbidea etorkinen integraziorako tresna izan daitekeela ikusiko dugu. Hala ere, ahalegindu garen arren, ez dugu une honetan irizpideak betetzen dituen praktikarik aurkitu eta horregatik ez dugu praktikarik aukeratu.

3.5 kulturartekotasunaren alorra

3.5.1 Errealitatearen azterketa

EAEko errealitatea beste erkidego batzuekin alderatzen badugu, Madril edo Kataluniarekin, esaterako, horietan etorkinek biztanleria guztiaren % 14 gainditzen dutela eta hemen, berriz, ehunekoak ia ez duela % 5 gainditzen ikusiko dugu²⁸. Azpimarratu beharra dago hala ere, azken urteetan atzerritar kopuruak gora egin duela nabarmen. Hain zuzen ere, 2007. eta 2008. urteen artean EAEko biztanleria etorkina % 19 hazi zen. Beraz, ikusten dugu atzerritarrak eta beste kulturetatik datozen gero eta pertsona gehiago dagoela gure gizartean bizitzen.

²⁸ INEko datuen arabera, EAEko biztanleria atzerritarra % 5,4 da, eta Espainiako batez bestekoa, % 11,3.

4. taula. EAEko biztanleria atzeritarra, sexuaren eta lurralde historikoen arabera, 2005-2008.

	2005				
	Gutzizkoa	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kop.	Kop.	%	Kop.	%
Espainia	3.730.610	1.992.034	53.40	1.738.576	46.6
EAE	72.894	37.383	51.28	35.511	48.7
Araba	15.141	8.316	54.92	6.825	45.1
Gipuzkoa	21.536	11.092	51.50	10.444	48.5
Bizkaia	36.217	17.975	49.63	18.242	50.4
	2007				
	Gutzizkoa	Hombres		Emakumezkoak	
	Kop.	Kop.	%	Kop.	%
Espainia	4.519.554	2.395.685	53.0	2.123.869	47.0
EAE	98.524	49.816	50.6	48.708	49.4
Araba	19.392	10.498	54.1	8.894	45.9
Gipuzkoa	29.040	14.913	51.4	14.127	48.6
Bizkaia	50.092	24.405	48.7	25.687	51.3
	2008				
	Gutzizkoa	Hombres		Emakumezkoak	
	Kop.	Kop.	%	Kop.	%
Espainia	5.220.577	2.777.003	53.2	2.443.574	46.81
EAE	116.650	59.989	51.4	56.661	48.57
Araba	22.734	12.509	55.0	10.225	44.98
Gipuzkoa	35.786	18.634	52.1	17.152	47.93
Bizkaia	58.130	28.846	49.6	29.284	50.38

(Iturria: IKUSPEGI. INEko datuetatik abiatuta)

Kulturari dagokionez bereizitako hainbat talde komunitate berean bizi direnean, hiru egoera mota sor daitezke:

1. Elkar ezagutzen ez duten komunitateen arteko gatazka.
2. Baterako existentzia-egoera, hau da, banako guztiak bat etortzen dira espazioan eta denboran, baina ez dago ez gatazkarik, ez elkarrekintzarik.
3. Bizikidetz-egoera²⁹, gizakien arteko elkarrekintza eta harreman harmoniatsua dakar, konnotazio positiboz betetakoa.

EAEen oro har baterako existentzia-egoera gertatzen da, hau da, ez da gatazkarik izaten, nahiz eta kultur identitate batzuk eta besteak aurkitzen diren egoeran ez

²⁹ C. Giménez Romeroren artikulua honen arabera: "Convivencia. Conceptualización y sugerencias para la praxis". Migrazioen eta Kulturarteko Bizikidetzaren Madrilgo Behatokiko koadernoetan argitaratutako artikulua.

dagoen elkarrekintzarik eta kasu gehienetan ez dira elkar ezagutzera ere heltzen. Hala eta guztiz ere, baterako existentzia-egoera txarra ez den arren, komunitate guztietan elkar ezagutu, elkar eragin eta bizikidetzaz eta harmonia-egoera errealerara heltzea bilatzen da. Hori da kulturartekotasunaren aldeko tokiko ekimenak existitzeko arrazoi nagusietako bat; hainbat aurrerapauso eman dituzte.

Kulturartekotasunarekin lotutako beste alderdi nagusietako bat kultur identitatea da. Hainbat definizioen arabera, **“identitatea bakoitzaren inguruneak transmititutako jokaerazko adierazleez eta balioez norberak egindako sintesia da. Balio eta preskripzio horiek banakoaren ezaugarrien eta bizitzako ibilbide propioaren arabera integratzen ditu”**³⁰. Beraz, identitatea pertsonen barru-barruko zerbait da, eta gure bizitza markatzen du, gure bizipen bakoitzak eraldatzen duen aldi berean. Alderdi horrek garrantzi berezia hartzen du gurea bezalako komunitatean, berez kulturantitza baita. Hainbat eremu geografikotan euskal identitateak garrantzi berezia hartzen du hainbat arlotan, esaterako kulturaren, hezkuntzan, gizartean, aisian eta pertsonen arteko harremanetan.

3.5.2 Kulturartekotasuneko jardunbide egokiei buruzko gure hausnarketa

Lehenengo atalean jorratutako kulturartekotasunari buruzko ezaugarri guztiak kontuan hartuta, taldeak bere definizioa osatu du. Kulturartekotasunerako jardunbide egokiak hautatzeko irizpideetan horren alde eginez, eremu horretako jardunbide egokiak aukeratzeko adostasuna finkatzeko balio izan du. Horrela, jardunbide egokien testuinguruan honela definitzen dugu kulturartekotasuna: **“partaidetza- eta elkarlotura-prozesu dinamikoa eta etengabeko bilakaeran dagoena kultur identitate antitzen artean. Kulturak homogeneous ez direnez eta kultur identitateko sentimenduak osagarriak direnez eta ez baztergarriak, prozesu horrek, norabide antizetako eta komunikazio irekikoak, gizarte-kohesioa bultzatuko luke, baita toki batekoa izatearen partekatutako sentimendua ere”**.

Aurrez aipatu dugun moduan, hausnarketan xedatzen da kulturartekotasunaren gaiko esperientziak jardunbide egoki izateko hauek bete behar dituela:

³⁰ KULTURARTEKO HEZKUNTZARAKO TXOSTENA: *Vivre ensemble autrement* (2002ko urria) txosten pedagogikotik ateratako artikulua, *Annoncer la Couleur* garapen-hezkuntzaren kanpainari dagokiona, estatuko idazkaritzaren ekimena Belgikako garapenaren kooperaziorako. CIPFUHEM-erako itzulpena: Elsa Velasco.

- Planteatutako problematikari erantzuna eskainiko dion planifikazio egokia duena eta helburuak denbora-tarte jakinerako finkatuko dituena (epe luzea, ertaina); planifikazio horrek, era berean, malgua izatea ahalbidetuko dion ebaluazio jarraiturako plana jaso behar du.
- Esku hartzen dutenen **partaidetza** beharrezko jotzen duen ekimena eta erabiltzaileen **autonomia sustatzen** duena.
- **Transferitu daitekeen eredia duena** eta aldi berean, iraunkorra izango dena.
- **Generoaren ikuspegia** jasotzen duen eta pertsonen **sexu-joera** kontuan hartzen duen ekimena.
- Ekimena egiten ari denaren berri ematen duen **komunikazio-plan egokia** duena, kontuan hartuta zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsona guztiak.

Amaitzeko, kulturartekotasunaren taldearen arabera, oso garrantzitsua da ikastetxeekin (hezkuntza formala) kulturartekotasunaren gaia espezifikoki lantzea. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeekin lan egiteko ekimen zehatzak dauden arren, lan horrek ikastetxeetan eta ikasketa-planean integratuta egon behar lukeela jotzen da eta, era berean, hezkuntzak bultzatu eta Hezkuntza Sailak arautu eta buru izan behar luke. Aipatu behar da ikaste atzeritarren etorrera modu aldebakarrean kudeatzen ari dela (heldu berriei zuzenduta soilik) eta gai linguistikoan soilik eraginez. Hezkuntza-komunitate guztiaren esku-hartze handiagoa behar da eta ikasketa-plan moduan barneratu behar da.

Hemen hiru atal azaltzen ditugu:

- a) Hautaketan aukeratutako **jardunbide egokiak** eta horiek laguntzen duten kulturartekotasunaren eremua: gizartearen partaidetza bultzatzen duten ekimenak, eremu jakineko biztanleriarekin modu integralean lan egiten dutenak kultur identitate desberdinen arteko bizikidetzak sustatzeko xedearekin, sareko lanari garrantzi berezia ematen dietenak eta generoaren gaia modu espezifikagoan kontuan hartzen dutenak.
- b) Jardunbide egokitzat hartzen ez diren arren, kulturartekotasunaren alderdi zehatzetan, modu berritzailean edo bestelako aldagaiak kontuan hartuta, eragiten duten eta **nabarmendu beharreko ekimenak** (“baterako existentziatik” “bizikidetzara” pasatzeko urratsa eta estereotipoetan eta ezezagutzan oinarritutako gatazka-egoeren prebentzioa).
- c) EAEko kulturartekotasunaren eremuan bereziki interesgarriak iruditu zaizkigun **azterketak**.

3.5.2.1 Kulturartekotasunaren alorreko jardunbide egokiak

ESPERIENTZIAREN IZENA:	KAIXO, NI NAIZ. Kulturarteko gizarte-partaidetzeri buruzko proiektua ³¹	BIKOTEKA
KATEGORIA:	GIZARTEAREN PARTAIDETZA SUSTATZEA	
ERAKUNDEA:	Barakaldoko Udala	ELKARBANATUZ erakundea
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	<ul style="list-style-type: none"> - Barakaldoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzaren aldi bereko finantziazioa. - Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Immigrazioarako Estatuko Idazkaritzarekin lankidetzaz-hitzarmena. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza - Bilboko Udala - BBK
DESKRIBAPENA:	<p>Programa horren xedea bizikidetzako elementuei buruzko eztabaida sustatzea da.</p> <p>20 BARAKALDARREK ELKAR BILATZEN zuten jolasa da. Pista-sistemaren eta konplizearen bidez, parte-hartzaileek bi astez elkar bilatu behar dute. Proiektu horri esker, Barakaldoko herritarren arteko distantziari, pertsonen arteko harremanetarako bitartekoei eta harremanen zirkulu berriei buruzko hausnarketa egin da. Azken batean, Barakaldoko herritarren arteko kulturarteko praktika aurkezten du eta Barakaldoko bizilagunen arteko harreman-sarea zabaltzea bilatzen du.</p>	<p>Xede nagusia jatorri, hizkuntza eta kultur identitate desberdinak dituzten pertsonen arteko komunikazio-eremuak sortzea da, kulturarteko eremuak garatze aldera.</p> <p>Idea irrunta da. Ekimenean parte hartzeko boluntario aurkeztzen direnen artean kulturarteko bikoteak sortzen dira, kontuan hartuta bikotekide batek gaztelania (edo euskara, kasuan kasu) arazo linguistikorik gabe hitz egin behar duela. Horrela, bi profil nagusi izango ditugu: batetik, Bilboko edo inguruko pertsona boluntarioak eta, bestetik, hainbat gazteia dituzten pertsona erabiltzaileak, besteak beste, erabateko autonomia galarazten duen gabezia linguistikoa dutenak (gaztelania edo euskara).</p>

³¹ (Barakaldoko immigrazioari buruzko tokiko planean urte garatzen ari diren kulturartekotasunaren eta bizikidetzaren testuinguruko programan sartzen da).

<p>KULTURARTEKO-TASUNAREN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>Barakaldoko Udalak ekimen horrekin eta Immigrazio Zerbitzuaren bidez -gizakiak eremu jakinean topatzera eramaten dituen esperientziaren bidez kulturen arteko hurbilketa lantzen du- eremu komuna sortu nahi du bizi-lagunen arteko distantziari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko eta harreman mota berriak lantzeko.</p> <p>KAIXO, NI NAIZ proiektua jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena askotariko jendeari heltzen zaio, baita kultur-artekotasunaren gaiarekin sentibilizatu gabekoei ere. - Berdintasunaren eremutik abiatzen da eta auzora heltzeko modua da. - Lehiaketatik abiatuta, sareak sortzen eta proiektuak proposatzen hasi diren erakunde eta taldeak sortu dira. - Ekimenaren inguruko gizarte-mugimendua sortu da. - Esperientziaren alderdi ludikoa nabarmentzen da. 	<p>Bikoteak, koordinatzailearen laguntzarekin, elkarrekin geratzen dira hitz egin, elkar ezagutu, esperientziak partekatu eta Elkarbanatuz elkartaren eguneko zentroak proposatutako jardueretan elkarrekin parte hartzeko (horiek trukea bultzatzen dute).</p> <p>Ez da hezakuntza-tresna linguistiko soil, baizik eta elkar-trukea, elkarrekin harremana eta ezagutza, autonomiaren hobekuntza eta aldaketa soziala.</p> <p>BIKOTEKA proiektua jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oso desberdinak diren eta oso egoera desberdinetatik datozten pertsonen arteko kultur trukea ahalbidetzen duen kulturarteko praktika da. - Atzerriarrari EAEn funtzionatu ahal izateko hizkuntza eta oinarriko kontzeptuak ezagutzeko aukera ematen dio, eta bertakoari, bestelako errealitate eta kulturak ezagutzeko. - Arazorik gabe transferitu daitekeen ekimena da eta herriko jardueretan ere sar daiteke. - Ez da berezko boluntariotza, hori baino arruntagoa da eta bestelako interesak dituzten pertsonak erakartzen ditu, eta aldi berean, sentibilizatu egiten ditu. - Parte hartzen duten pertsonen errealitateak hain desberdinak izanik (pertsona asko erakundeko bestelako zerbituetako erabiltzaileak dira), zaila da taldeak berez sortzea. Hala ere, ez da nabarmendu beharreko alderdi-tzat hartzen, helburu bikoitza betetzen baitu, pertsonak hizkuntza eta moldatzen ikastea eta besteak errealitate desberdina ezagutzea.
--	---	--

	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Inpaktu positiboa izan duen arren, Barakaldoko gizartearen ez da behar adina sartu eta, beraz, inpaktua hobetu egin daiteke. - Gizartearen partaidetzak dedikazio eta motibazio handia eskatzen du. Proiektuaren alderdi hori ere hobetu daiteke. - Urtearen gainerako zatian proiektuari jarraipena emateko zailtasuna ikusi da. 	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimenerako boluntarioak bilatzerakoan zailtasunak topatzen dira. - Bikoteak osatzen dituzten pertsonek zentrotik kanpo jarduera alternatiboak egiteko (zinea, antzerkia, museoak...) ez dago baliabide gehiegi.
<p>INPAKTUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen bi edizioetan adinari, lanbideari, motibazioari... dagokionez oso profil desberdinak dituzten 40 pertsonek hartu dute parte. - Ez da generoari dagokionez diskriminazio positiboa egiteko eraginik egin; izan ere, parte hartzean berdintasuna gertatu da. - Etorकिन kolektiboari herriko kulturetxeen sarerako hurbilketa egin zaie eta ekipamenduen erabilera areagotu dela ikusi da. - Etorकिन eta bertako arteko lan-proposamenak, to-paketak eta baterako jarduerak sortu ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - 2007-2008an 35 bikotek hartu zuten parte ekimenean (Euskadin jaiotako 31 pertsona eta 39 atzerriar). - Erabiltzaileen autonomia hobetzeko xedea hizkuntza ezagutuz betetzen da, hizkuntza txertaketa-prozesutik kanpoko pertsonekin (hezitzaileak) eta egoera informala-goetan praktikatuaz.

ESPERIENTZIAREN IZENA:	GUZTIOK PROIEKTUA
KATEGORIA:	Bizikidetzaren hobetzen laguntzeko programa integralak.
ERAKUNDEA:	GUZTIOK proiektua Mundakako Udalarekin lankidetzan.
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	Mundakako Udala Eusko Jaurlaritza
DESKRIBAPENA:	<p>GUZTIOK 2007. urtean martxan jarritako sentsibilizazioa eta kulturarteko bizikidetzaren bultzatzeko proiektua da. Hasiera batean, udalerriari bizi ziren nazionaltasun desberdinetako pertsonen arteko elkarrekintza urriaren (baterako existentzia) egoerari erantzuna emateko programa puntual moduan sortu zen. Ikerketa bat egin zen herritarren (etorkinak eta bertakoak) beharrez jabatzeko eta jarduera-ildo nagusiak identifikatzeko.</p> <p>GUZTIOK proiektua etengabeko bilakaeran dago. Esku-hartze txikiekin hasi zen eta pixkanaka jarduera-eremua zabaltzen joan da. Gaur egun, jada ez da proiektu puntuala, aldi berean beste programak kudeatzen dituen udal-zerbitzu garrantzitsua baizik. Gainera, elkartrukerako eremuak sortzeko eta guztiengan eta udalerriari martxan dauden zerbitzu eta programa guztiengan sentsibilitatea pizteko motor gisa jokatzen du.</p> <p>Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Asotariko kultur identitatearen artean modu horizontalean gertatzen den elkartruke dinamikoa eta etengabeko bilakaeran dagoen kulturartekotasunaren prozesua indartzea. - Integrazioa bultzatzea "norabide anitzeko" prozesu moduan - Bestelako errealitateetako sentsibilitatea piztea <p>Helburu horiek lortzeko elkarrekiko osagarriak diren hainbat eremutan egiten da lan, ahalik eta inpakto handiena lortzeko eta modu integratuean jarduteko: etorkinekin eta haien familiekin bakarrik lan egin ez, herritar guztiei zabalduko aisiaidirako jarduerak egin, ikastetxean lan egin (behar dutenei laguntza emanez -batez ere, euskarazko laguntza linguistikoa- eta hezkuntza-komunitate guztiarekin), elkarre-huna eta eremuak kultur taldeak koordinatuz, emakume etorkinak emakumeen elkarrekin sartuz (emakumeen partaidetza aktiboa eta kulturartekotasuna bultzatuz), eremuan eta mankomunitateen beste erakunde sozialekin sarean lan egin.</p> <p>Proiektuak arrakasta handia izan du eta kontuan izan behar da garatu den testuinguruaren mende dagoela hein handian.</p>

<p>KULTURARTEKO-TASUNAREN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>GUZTIOK proiektua jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biztanleriaren sektore guztiei erantzuten dien proiektu integrala da. - Proiektuak garatu den testuinguruko ezaugarriak dituen arren, beste errealitateetara transferitu daiteke egokituia. - Eremuko elkarte-ehun guztiarekin lan egin da. Ehuna oso abegikorra da eta hori abantaila izan da, prozesua erraztu baitu. - Eremuan aurretik zeuden baliabideak erabili dira, ez da zerbitzu berririk asmatu edo sortu beharrik izan. - Aurretik zeuden zerbitzuak pixkanaka egokitu dira egoerak behartu gabe eta hainbat kultur identitatearen arteko bizikidetzaren helburua lortzeko. - Egun proiektua dinamizatzaile bihurtu da eta udala jabetu da proiektuaz.
<p>INPAKTUA</p>	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak baliabide material eta giza baliabide mugatuak ditu. - Proiektuaren jarduketa-eremu geografikoa mugatua da, horregatik, esperientzia beste testuinguruetara transferitzeko aldeaz aurretik beste leku eta errealitateetara egokitzeko hausnarketa egin behar da. - Immigrazioaren aurrean herritarren jarrera-aldaketa gertatu dela ikusi da (aldeaz aurreko eta ondorengo galdeketa emandako erantzunetan % 65eko aldaketa islatu da). - GUZTIOK proiektuak antolatutako jardueretan herritarren partaidetza nabarmen areagotu da (% 100 atingabekoaren kasuan eta % 40 helduen kasuan). Etorकिन kolektiboaren partaidetza ere areagotu da festetan, eskolaz kanpoko ekintzetan, ospakizunetan eta eremuko elkarte-ehunak antolatutako bestelako aldarrikapenetan. Asetasun maila ere oso altua izan da. - Modu espezifikoan landutako kasuen % 100ean emaitza akademikoak hobetu direla ikusi da. - Lan egindako haurrekin, kasuen % 100, euskararen erabilera handiagoa eta hobearen ematen da. - Esku-hartutako atingabeko eta heldu etorkinengan atzemandako antzietate eta depresio maila nabarmen murriztu da. - Mundakako herritarrek, oro har, (bertakoek eta etorkinek) proiektuarekiko konpromiso handia hartu dute, haren antolaketan nahiz egikaritzean aktiboki parte hartuz. - Emakume etorkinaren partaidetza areagotu da eta eremuan aurretik zeuden kolektiboetan barneratu dira.

ESPERIENTZIAREN IZENA:	KULTURARTEKO TOPATEKARAKO ETA PARTAIDETZARAKO ZENTROA: ZUBIGUNEAK
KATEGORIA:	Sareko lana
ERAKUNDEA:	ZABALTZEN – SARTU Elkartea ³²
FINANTZIAZIOA/ LAGUNTZA:	Finantziazio publikoa
DESKRIBAPENA:	<p>ZUBIGUNEAK esku-hartze eremuan “baterako existentzia-egoeratik” “bizikidetzia-egoerara” pasatzea xede nagusi duen garapen komunitarioko proiektua da. “Baterako existentzia-egoera” 2006. urtean detektatu zen, Ikerketa-Ekintza Parte-hartzaileaz (IEP) baliatuz egindako diagnosian. Era berean, egoera hori bizikidetzarantz aldatzeko jarrera ere topatu zen, bai etorkinen, bai bertakoen aldetik.</p> <p>Gizarte-eskaera horri erantzuteko, 2007. urtean Zubiguneak sortu zen. Fase pilotuan 3 eremu landu dira: Partaidetza soziala (elkarte, baliabide sozial eta Durangaldeko udalerrien arteko partaidetza-tailerrak, elkar ezagutzeko eta proposamenak modu bateratuan egiteko xedearekin); laguntza (banakako laguntza zaurkortasun-egoera berezian dauden etorkinei edo elkartei, haien partaidetza soziala areagotzeko); artekaritza (kasu horretan, prebentziozkoa, gaiazkako sor daitezkeen eremuak identifikatuz eta haiek sortu aurretik egoera aldatzen saiatuz). Eremu horietatik egoera globala aldatzeko helburua beteizen eta hainbat jatorritako bizilagunen arteko bizikidetzia-egoera erreala sortzen ahalegintzen da proiektua.</p> <p>Garrantzitsuena komunitatean lan egitea da (nahiz eta banakako esku-hartzeak ere egiten diren) eta pertsonek zerbitzuak ezagutzea haietara heldu aurretik eta elkar ezagutzea elkarerragietako eta parte hartzeko. Horregatik, bertakoen eta etorkinen erakundeekin gehiago lan egiten da informazioa eman eta jasotzeko.</p>

³² Esku-hartze eremuko elkarte eta baliabide guztiak elkarlanean aritzen dira: Biltzen, Heldu, Cáritas (Durango), Jesuiten etxea (Durango), Andereak elkarte, Geu be, MLOMP Senegal elkarte, Ghanako elkarte, Durangoko aurretik erretiratuaokoen eta penسیونdur elkarte APPELUR, +Dendak elkarte, Durangaldeko komunitate islamiarra, Bateginez, Gure San Fausto berria, Murueta Dorreko (Durango) auzo-elkarte, Elacurria zentroa, Kristitiin dantza-taldea, Ifurri, Songintzulo.

	<p>Eremu horiek lantzeaz gain, aisialdiko ekitaldi zehatzak prestatzen dira partaidetza-tailerrean eta eremuko elkartean eta pertsonen partaidetza sustatzen ahalgintzen dira (Durango kosmo-polita, Munduko arrozak...); Tailer horietan estereotipoak apurtzera bideratutako ekimen interesgarriak garatzen dira, bide batez errealitateak ezagutzeko eta partekatzeako eremuak bilatuz. Erronka (pertsona batzuen zein besteen) bertzepezioen aldaketan eta gizarte-erantzukidetasuna sustatzean datza.</p>
<p>KULTURARTEKO-TASUNAREN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>ZUBIGUNEAK proiektua jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gauzatutako diagnosian oinarritzen da. Proiektua herritarren eskariei erantzuna ematean oinarritzen da, beraz, biztanleria hartzailearen jabetzatik abiatzen da. - Garapen komunitarioaren kontzeptutik abiatzen da eta nagusiki kolektiboekin egiten dute lan. Kolektibo guztiak hartzen dira kontuan (elkarrekin, bizilagunak, kultur taldeak...) eta horiek dira proposatu, antolatuta eta garatzeaz arduratzen direnak. Erakundeak beharrezko baliabideak eskaintzen ditu edo ez badaude bilatu egiten ditu eta antolaketan eta egikaritzean laguntzen du. - Aurretik garatzen ari dena balioetsi eta sustatzean datza. - Kolektiboekin lan egiteak biztanleria zabalagora heltzeko aukera ematen du eta esku-hartzeak iraunkorragoak izatea eragiten du. <p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzeko dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektua diru-laguntzei esker ateratzen da aurrera, beraz, iraunkortasuna alde horretatik (finantzariora) ezin bermatu daiteke. - Sentsibilizatutako inguruneetan soilik ezagutzen den ekimena da; izan ere, herri mailan ez du interes gehiegi pizten.
<p>INPAKTUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekimena eremuan ezagutzera ematen ari da, nola sartu galdetzeraz etortzen den jendea baitago. - 2008-2009an ebaluazio kuantitatibo-kualitatiboa egin da eta emaitzak "baterako existentzia-egoerak" oraindik ere jarraitzen duela erakutsi du, beraz, programarekin jarraitzea erabaki da.

ESPERIENTZIAREN IZENA:	EMAKUMEEN ELKARTEAK
KATEGORIA:	Generoaren ikuspegia
ERAKUNDEA:	Munduko Emakumeak - Mujeres del Mundo "Babel" (Bilbo) Emakumeak Aniztasunean - Mujeres en la Diversidad (Basauri)
DESKRIBAPENA:	<p>Mota horretako lehen erakundeak Munduko Emakumeak Babel izan zen. Bilbon 1999. urtean sortu zen, emakume biltzarrez osatuta: batzuk Bilbon jaioak, beste batzuk duela asko iritsitakoak eta besteak gaur heldutakoak. Toki desberdinetatik etorritako emakumeen borondatez sortutako ekimena da; elkar topatu eta ideiak eta ezagutzak partekatzeke denbora hartzeko prest zeuden emakumeek sortutakoa.</p> <p>Ezaugarri horietako emakumezkoen elkarteen helburu nagusia hainbat jatorritako emakumeentzako zabaldutako truke, bilera eta hausnarketarako eremua sortu eta eskaintzea da, haien kultura sustatu, ezagutzak partekatu edo gauza berriak ikasteko interesa duten heinean, betiere. Eredu horretan finkatzen diren harremanak elkarrekikotasunean eta berdintasunean oinarritutakoak eta horizontalak dira eta entzuketara afektiboa metodologia moduan erabiltzeari esker, enpatia berdintasunezko harreman mota hori bultzatzen du. Partekatzea da helburua, elkarteak parte hartzen duen proiektuetan, jardueretan edo ekintzetan partaidetza bultzatuz (elkarteko kideen egoera pertsonala kontuan hartuta, betiere).</p> <p>Lehen elkarte horretatik beste hainbat sortu dira. Lehenengoa adibide moduan hartuta hainbat kokapen geografikotan garatu dira, Basaurin Emakumeak Aniztasunean, besteak beste. Elkarte horiek hasiera batean emakumeak elkar-tzeko taldeak ziren eta, ondoren, pixkanaka elkarte biltakatu ziren adibideari jarraiki eta Munduko Emakumeak Babel elkartearen laguntzarekin; aipatutako elkarteak elkarre berriak sortzeko laguntza moduan balio duten erreferentziarako argitalpenak ditu.</p>

<p>KULTURARTEKO-TASUNAREN ALORREAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK</p>	<p>EMAKUMEEN ELKARTEAK jardunbide egokien artean sartzeko arrazoiak (indarguneak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen arteko topaketa aktiboetan oinarritzen dira eta ez kolektibo jakinen artekoetan. Partaide izateko eskakizun bakarra emakumea izatea da (jatorriak ez du axola). - Kide diren emakumeen arteko harremana berdintasunezkoa da. - Elkarteetako kide diren emakume guztiak boluntarioak dira, beraz, horrek bakoitzaren konpromisoa adierazten du. Horrek luzarora iraunkortasuna ekar diezazkie ekimenei. - Praktikak erakusten duen moduan, esperientzia transferitu egin daiteke. - Munduko Emakumeak elkarteak (lehen elkarteak) esperientziak sistematizatzeko hainbat liburu ditu³³ eta ekimeneko praktiketatik ikasteko balio dute. - Partaidetza aktiboa da, eta kide diren emakumeek interes komuneko proiektuak eta jarduerak bideratzen dituzte. - Esku hartzen duten eremuetan oso ezagunak dira elkarteak.
<p>INPAKTUA</p>	<p>Jardunbide egokiaren barruan hobetu beharreko elementu hauek sartzzen dira (ahultasunak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izaera boluntarioa indargunea den bezala, kudeaketa-gaietan konpromiso handia eskatzen duela esan nahi du eta funtzio hori boluntariotzaren alderdi horrek ahuldu egin dezakeela jarraitasunari dagokionez. <p>- Munduko Emakumeak Babel elkartearen emakumeek ez dute izena ematen, horren ordean, maiztasun gehiago edo gutxiagorekin parte hartzen dute. Erakundetik 114 emakume pasatu dira, baina asteroko bileretan 30 inguru biltzen dira. Parte hartzen duten emakume horien % 90 etorkinak dira. Zuzendaritza Batzordeari dagokionez, emakume etorkinen proportzioa % 57,1ekoa da.</p> <p>- Basauriko Emakumeak Aniztasunean elkartearen 30 kide dira (12 dira, hala ere, modu jarraituan eta aktiboan parte hartzen dutenak). Kide diren emakumeen % 70 inguru etorkinak dira.</p>

³³ Munduko Emakumeak - Mujeres del Mundo "Babel" elkartearen esperientziari sistematizatzeko liburua:

- "Abanico de colores", Mujeres del mundo: Sistematizando aprendemos. Alberganía argitaletxea, Zarautz, 2006.
- "La aventura de la sistematización: como mirar y aprender de nuestras prácticas desde nuestras prácticas". Hainbat erakunderen artean egindakoa.

3.5.2.2 Nabarmendu beharreko ekimenak

KATEGORIA	EKIMENA	NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK	ERAKUNDEAK
Eztabaidaren eta jabetzaren sustapena.	<p>KULTURARTEKO IKASGELA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hiritarren sentibilizazio-gaietan zegoena biltzen eta izaera iraunkorra ematen jakin du. Kulturartekotasuna modu puntual eta zatikatuan lantzeko modua apurtzen du. - Berritzailea da. Kulturartekotasuna partaitetza-prozesu eta norabide antizko topaketa moduan lantzen duelako. 	BARAKALDOKO UDALA
	<p>GASTEIZKO KULTURARTEKO ASTEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Arabako gizartearen etorkinek egindako ekarpenaren aberastasun kulturala zabalitzen laguntzen du. - Denbora-epe luzean (urtea) gauzatutako lan-prozesua da eta kulturarteko astearekin amaitzen da. Bertan mota guztietako jarduerak ludiko, folkloriko, eztabaida eta hausnarketak izaten dira (tailerrak, eztabaidak, zine-foruma, dantzak, amalerako festa...). 	AFROAMERIKAR ELKARTEA
	<p>ERABILTZAILAILEEN PARTAIDETZA PROZESUA BOLUNTARIO MODUAN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerritarren (errefuxiatuak eta etorkinak) eta bertako biztanleen arteko bizikidetzaren sustatzeko lana eta barne-hausnarketa nabarmentzen da. - Prozesua erakundeko plan estrategikoetan jaso da. 	CEAR EUSKADI
Etorikinen partaidetza sozialaren sustapena	<p>KULTURARTEKOTASUN JARDUERAK ELLAKURIA ZENTROAN</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jardueren antolaketan eta egikaritzean modu aktiboan parte hartzen duten etorkin boluntarioen kopuru esanguratsua lortu dute. - Ereduak hainbat jarduerara gauzatzeko etorkinen elkarteei uzten zaizkiela nabarmentzen da. 	IGNAZIO ELLAKURIA GIZARTE FUNDAZIOA
	<p>SAREGUNE</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen partaidetza nabarmentzen da, hala nola irakasle moduan (aldeaz aurretik SAREGUNE prestatutakoak). - Zentroa jotzen duten pertsonen arteko sare soziala sortzeko laguntza. - Zentroa jotzen duten guztiei teknologia berrietarako sarbidea ahalbidetzen zaie. 	SARTU ARABA

<p>Lana komunikabideekin</p>	<p>ANIZTASUNAREN BEHATOKIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kazetarietara eta komunikazioetara agentetara zuzendutako prestakuntza (estereotipoen erabilera saihesteko eta hizkuntza komunikazioetara egokitzeko). - Dokumentu-funts esanguratsua dute. - Egunero egiten da komunikabideen azterketa. - Datu-basea ikerketetarako lagatzea. 	<p>MUGAK – SOS ARRAZAKERIA</p>
<p>Etorrintzako orientazio sexuala eta sare sozialak sortzeko laguntza</p>	<p>HEMEN DAGO ZIURE TOKIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriarrentzako laguntza sexu-egoera onartzeko eta hortik eratorritako arazoak atzemateko. - Beste herrialdeetatik etorritako pertsonentzako sare sozialak sortzeko laguntza. - Etorrintzako sexu-orientazioa lantzen duten profesionalentzako prestakuntza eta orientazioa. - “Gayak, lesbianak eta transexualak diren etorkinen gizarteratzea errazteko jarduerak-protokoloa” eskuliburua nabarmentzen da. 	<p>ALDARTE</p>

3.5.2.3. Kulturartekotasunaren alorreko azterketa interesgarriak

Hizkuntzak eta immigrazioa – Euskal Herriko aniztasun linguistikoa. Immigrazioaren aberastasuna

- **Egilea:** UNESCO ETXEA eta IKUSPEGI (Immigrazioaren Euskal Behatokia)
- **Jarduera-eremua:** EAEko autonomia-erkidegoa eta Nafarroa
- **Finantziatzaileak:** Eusko Jaurlaritzza – Immigrazio Zuzendaritza eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- **Azterketa hemen aurki daiteke:**
 - IKUSPEGI: http://www.ikuspegi.org/documentos/documentos_internos/hizk_immi_web_cas.pdf
 - UNESCO Etxea: http://www.unescoeh.org/base/argitalpenak.php?id_atala=9&id_azpiatala=416&hizk=es&aukeratu=105

LABURPENA

Hizkuntza eta immigrazioa argitalpena UNESCO ETXEA erakundeko **Amarauna** talde teknikoak gauzatuak ikerketan oinarrituta dago, IKUSPEGI behatokiaren lankidetzarekin. Horri esker, gure inguruan ofizialak diren hizkuntzez gain, hitz egiten direnak edo entzun daitezkeenak identifikatu dira. Azterketa horren helburu nagusia hizkuntza horien presentzia ezagutaraztea, identifikatzea eta jatorrizko herrialdeetako oinarritzko informazio soziolinguistikoa hedatzea da. Horrekin immigrazioaren ondorioz sortutako aberastasun linguistiko eta kultural handiari buruzko sentsibilizazio soziala bultzatu nahi da, gizarte-ulerkortasuna eta bizikidetzaz errazteko eta sustatzeko xedarekin. Ikerketan jatorria 66 herrialdetan duten pertsonengana heldu dira eta guztira 100 hizkuntza (horietako asko ama-hizkuntzak) hitz egiten dira EAEn.

Hizkuntza guztien alderdi komunikatibo, sinboliko eta identitarioen hedapenari ematen zaio garrantzia, gizarteak pluraltasun linguistikoaren aberastasuna ezagutu dezan. Hizkuntza bakoitzaren balioa nabarmendu nahi da; izan ere, bakoitzak bizitza ulertzeko modu berezia eskaintzen du.

Hedapen-politika edo komunikazio-plana: Ikerketa hori hainbat modutara zabandu da:

- Ikerketaren bilketa “Hizkuntzak eta immigrazioa” argitalpenaren: euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da. Eskuragarri dago Interneten.
- Hizkuntzak eta immigrazioa II. kongresua: 2008ko maiatzaren 23an Bilboko Euskalduna jauregian, 100 pertsona baino gehiago bertaratu ziren. Kongresu horren testuinguruan aurkeztu ziren ikerketaren emaitzak eta nazioarteko aditu garrantzitsuen partaidetza izan zuen.

- Hizkuntza eta immigrazioa II. kongresua Nazio Batuen Hizkuntzen Nazioarteko Urteko jardueren artean jaso zen eta, beraz, UNESCOren web orrialdean zabaldu zen.
- “Euskara, immigrazioa eta eskubide linguistikoak” jardunaldia: Bilbon, 2007ko azaroan, euskara eta immigrazioko teknikariek.
- “Euskara, immigrazioa eta eskubide linguistikoak” argitalpena: jardunaldiko ekarpenak jasotzen ditu, Interneten ere eskuragarri.
- Azterketaren laburpena IKUSPEGI - Immigrazioko Euskal Behatokiko 25. zenbakian: hedapena immigrazioko euskal teknikarien eta elkarten artean.
- Lanaren aurkezpena EHUko Udako ikastaroetan - 2008: “Migrazio-prozesuak” eta Hizkuntzen Europako Astean - Donostiako Udala, 2009.
- Hedapen handia hainbat euskal komunikabidetan eta espezializatutako aldizkarietan.

3.6. faktore erlijiosoa kontuan hartzen duten esperientzien alorra

3.6.1 Sortzen ari den errealitateari aurre eginez

Hausnarketan kontuan hartu nahi izan da, gizarteratze-prozesuaren barruan, **elkarren ezagutzaren eta gure identitatearen alderdi erlijiosoei buruzko elkarrekiko ezjakintasuna murrizteko lanaren sustapena**. Jabetzen gara erlijio-gaiei buruzko gure ezjakintasuna aurreiritzien iturri izan daitekeela eta ondorioz, sinesmen desberdinetako pertsonen behar bezalako gizarteratzea galaraz dezakeela eta arazo jakinen oinarrian egon ohi dela. Era berean, mundu mailan gehien erlijioek eta pentsamenduzko filosofiek ere –eskualdearen arabera gehiengoa edo gutxiengoa izan dezakete herri mailan– ahalmen integratzailea dutela pentsatzeko arrazoiak ditugu, behar bezala aitortu eta landu gabeko elementu etiko substantiboak partekatzen baitituzte.

Taldeak gainditu behar izan duen auzi garrantzitsuenetakoa gaia zentratzea izan da hain zuzen; izan ere, hausnarketan ikusi dugun moduan, erlijioa hainbat modutara eta intentsitate ezberdinekin ager daiteke eta hainbat alorretan sar daiteke (kultura, erlijioa, hezkuntza, lana...). Kultura(artekotasuna)ren gaiaren barruan kokatzen den arren, ad hoc taldea sortzea erabaki da, berezko “substantzia” duen gaia delako eta bakoitzak bere identitateaz egiten duen definizioan zuzenean eta modu esanguratsuan eragiten duelako, bai sinismena dutenengan, bai sinisten ez dutenengan; biek ere gauza bera bilatzen baitute: euren sinismenean edo ez-sinismenean errespetatuak izatea.

3.6.2 Erliio aniztasuna gizarteratzeko faktore bilakatzea

Taldearen hausnarketan islatu nahi genituzkeen hainbat gai aipatu ditugu:

- Gure helburua bikoitza da: batetik, **erlijioaren gaiari buruzko arreta eman** nahi dugu eta, bestetik, **ikusarazi** egin nahi dugu. Hor dagoen gaia da, batzuetan gatazkak edo tentsio-egoerak sortzen ditu eta zenbait kasutan irtenbidea eskaintzen da.
- Hemen datozen jarduera-eremuak bereizten ditugu, baina horiek ez dira ez bakarrak, ez baztergarriak³⁴:
 - o Erliioartekotasunari buruzko foroak
 - o Lan-eremuko artekaritza
 - o Hezkuntza formala
 - o Hezkuntza ez-formala (aisia eta denbora librea jasotzen ditu), sentsibilizazioa
 - o Erliio-askatasunaz baliatzeko eskubidea (espazioen lagapena, kulturako eremuak eraikitze laguntzak...)
 - o Ikerketak eta azterketak
 - o Prestakuntza / jardunaldiak (funtzionario publikoei, zabalduetako erlijioetako agente erlijiosoei eta abar zuzenduta egon ohi dira)

Jarduera-eremu horien artean egiten ari diren lanean **alderdi** hauek nabarmentzen ditugu³⁵ eta horiek gainjarrita edo elkar gurutzatuta adieraz daitezke:

1. alderdia Tartean sartzen dituen gaiak landuz:

Gai teologikoak tartean sartzen dituzten eduki erlijiosozko esperientziak, definizio etiko edo doktrinazkoak (TEOLOGIA) / bizikidetzako alderdiei eragiten dieten eduki erlijiosozko esperientziak (BIZIKIDETZA) / eskubideak betetzea eragiten duten eduki erlijiosozko esperientziak (ESKUBIDEAK).

2. alderdia Tartean sartzen dituen aktoreei erantzunez:

Eguneroko bizikidetzan pertsonak tartean sartzen dituzten eduki erlijiosozko esperientziak, banakakoak edo kolektiboak, (PERTSONAK) / administrazioko erakundeekiko eta enpresekiko harremana eragiten duten eduki erlijiosozko esperientziak (ERAKUNDEAK) / pertsonak beste erakundeekin lotzen dituzten eduki erlijiosozko esperientziak (elizak, konfesio erlijiosoak, herritarren elkarteak) (KREDOA).

³⁴ Sarreraren amaieran jarriko den esperientzien taulan eremu horietako bakoitzari erreferentzia deskriptiboa egingo zaio.

³⁵ Esperientzien taulan izendatutako ekimen bakoitzean zer alderdi lantzen den ere zehaztuko da. Elkar gurutzatuta adieraz daitezkeela kontuan hartuta, betiere.

3. alderdia **Eragiten dituen efektuei edo lortu nahi dituen helburuei erantzunez:**

Alderdien arteko gatazkak eta haien ebazpena edo haietan sakontzea ekartzen duten eduki erlijiosozko esperientziak (GATAZKAK) / erlijioaren eta haren pluraltasunaren gizarteratze positiboa eguneroko bizitzan eta kulturaren proposatzen duten eduki erlijiosozko esperientziak (GIZARTERATZEA) / gizarteratzearen eta bizikidetzaren pluralaren aldeko sentsibilizazioa proposatzen duten eduki erlijiosozko esperientziak (SENTSIBILIZAZIOA).

- Esku-hartze mailen arteko bereizketa nabarmena topatzen dugu; izan ere, erakundeak zurrinak dira eta motelago egiten dute lan adostasunak finkatzeko, baina maila pertsonalean, egunerokoan edo informalean, aldiz, arrisku gehiago hartzeko joera dago bizikidetzaren azkarrago bilatzeko eta sor daitezkeen arazo eta gatazken irtenbideak bilatzeko malgutasun handiagoa dago.
- Mundu mailan gehien errotutako erlijio eta korrante filosofiko edo espiritualek pertsonen arteko gizarteratze-irrikaren aldeko eta kontrako faktore anibalentea dute; horri buruz sarreraren hasieran hitz egin dugu. Hau da, batetik pisu handia izateko joera duen faktore bereiztailea dago, eta pertsonen arteko errezelok edo antagonismoak sortzea eragin dezake; hala ere, horren alde esan dezakegu funts etiko komuna dagoela erlijio edo korrante filosofiko edo espiritual horien artean. Funtsa handia izan daiteke, baina ezezaguna izan daiteke edo desadostasunaren edo bereizketaren mende gera daiteke. Proposamen modura, **elkarren arteko ezagutzaren sustapena garrantzitsua** dela uste dugu, aipatutako **elementu komunen sustapenean lagun baitezake**, horrela, horiek ez dira estigmatizatuko eta pertsonen oinarrizko eskubide eta askatasunak bultzatzen lagun dezaketen faktore bihurtu daitezke.
- Azkenik, sinesmen erlijiosoen edo sinesmen-faltak zenbait pertsonen bizitzan eta ekintzetan eragiten duela aipatuko dugu, hau da, norberak bere identitateaz egiten duen definizioan. Hori dela eta, argi utzi nahi dugu gai hori hor dagoela eta bizitzako alor ugarietan eragiten duela (lana, gizartea, bizikidetzaren...); irtenbidea ez da gaia saihestu edo baztertzea, ikustaraztea baizik, horrela, sortzen dituen arazoak eta erronkak ebazteko.

3.6.3 Faktore erlijiosoa kontuan hartzen duten ekimenei buruzko gure hausnarketa

Hausnarketan zenbait alderdi nabarmendu dira eta behar zehatzak diagnostikatu dira garatzen ari diren gizarteratze-ekimenetan faktore erlijiosoa kontuan hartzeari dagokionez:

- Oro har, erlijioei erreferentzia egiten dieten araudi eta legeei buruzko ezjakintasuna dagoela nabarmendu da, eta horrek, zenbait kasutan, erlijio-askatasunaz gozatzeko zailtasunak ekartzen ditu eta aurreiritziak sortzen ditu.
- Bestalde, komunitate erlijiosoen funtzionamenduari eta haien kulturako lekuei buruzko ezjakintasuna ere badago (arduradunak, arduradunen atribuzioak...).
- Zenbait kolektibo / profesionalentzako erlijioari dagokionez (praktikak, aniztasuna...) talde espezifikoa egotea positibotzat hartzen da.
- Lanaren alorrari dagokionez, artekaritzan kultur elementua jasotzea eta faktore erlijiosoa beti kontuan hartzea beharrezko jotzen da eta, horretarako, komenigarria litzateke erlijio bakoitzaren baldintzak eta espezifikotasunak ezagutzea.
- Gizarterako, oro har, eta erakunde sozialetarako, bereziki, lagungarri izan daitezkeen bi ekintza proposatzen dira:
 - o Erlijioarekin lotutako baliabideen gida edo sintesia, pertsoneri bideratzeko (erakunde sozialen kasuan, erabiltzaileak), behar erlijiosoa ere oinarritzakoak direla hartzen baita.
 - o Erlijio desberdinen estereotipoak apurtzeko eta gizartera praktika erlijioso desberdinekiko toleranteago bilakatzeko xedea duten sentsibilizazio- eta informazio-kanpainen diseinua.

Koadro honetan landu ditugun gaiei erantzuna emateko xedearekin egun EAEn garatzen ari diren **zenbait esperientzia deskribatzen ditugu**. Esperientzia ezagunak deskribatzen eta hausnartzen dituen koadroa da. Inolaz ere ez du eremu horretako jardunbide egokirik finkatzen, izan ere, hausnarketan ezin izan dugu egoera guztietarako balio dezakeen aukeraketa-irizpiderik finkatu, gaia berria delako.

Hori horrela, atea zabaldu nahi dugu gaia landu dadin eta faktore erlijiosoa hor dagoela eta pertsonen arteko harremanean eragiten duela ikusarazi nahi dugu, bereziki, jatorri ezberdina duten eta ezezagunak diren erlijioen kasuan, horren ondorioz konfiantza-falta sortzen baita. Era berean, hausnarketara irekitako koadro malgua izatea nahi dugu eta ezagutu eta sortzen diren beste esperientziekin osatzen jarraitzea.

JARDUERA EREMUA	EAEko EKIMENAK	DESKRIBAPENA	ERREFERENTZIA EGITEKO HARTZEN DITUEN ALDERDIAK ³⁶	OHARRAK
ERLIJIOARTEKOTASUNARI BURUZKO FOROAK	Erljioartekotasunari buruzko elkarrizketa-taldea (DIAR)_ Ellakuria zentroa	Ignazio Ellakuria Gizarte Fundazioaren ekimena Erljioari buruz eztabaidatzeko biltzen diren pertsona fisikoen taldea da. Esperientzia pertsonalen taldea da eta bertan norik bere burua aurkezten du.	<ul style="list-style-type: none"> - 1. alderdia: BIZIKIDETZA - 2. alderdia: PERTSONAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA 	
	Bilboko erlijioartekotasunari buruzko foroa	Unesco Etxeak antolatua. Instituzioen ordezkaritza handiagoa dago (artzairenak, imanak...)	<ul style="list-style-type: none"> - 1. alderdia: BIZIKIDETZA - 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA 	Erljioarteko topaketa Euskalduna jauregian egin zen.
	TALAIPE taldea	Zumaian sortu zen maila pertsonaleko eta instituzionaleko erakunde hauen ordezkariekin: Lizarrako foroa, Ignazio Ellakuria Fundazioa, Baketik..., baina ez dute erlijioetako ordezkari moduan parte hartzen. Proposamen zehatzak aurkeztea xede duen hausnarketarako foroa da.	<ul style="list-style-type: none"> - 1. alderdia: BIZIKIDETZA - 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA -SENTSIBILIZAZIOA 	Proposamen zehatzen artean hauek nabarmentzen dira: erlijioen arteko topaketarako puntuak gaitzeko eremuen eskaera, partaidetza erlijioen parlamentuan (Australia). Sentsibilizatorantz bideratutako taldea da: erlijio talde gutxituen "sekta" katalogazioa apurtzen ahalegintzen da.

³⁶ Esperientzien barruan hainbat elementu daudela erakutsiko du eta esperientzia guztiak alderdi bakarrean jasotzeko zailtasuna agertuko du.

	Lizarrako foro espirituala	Lizarrako Alaba Elkarteak sustatutako foroa da. Lizarran urtero egiten den topaketa da eta helburu nagusia bizikidetzaren eta elkarrekin ospatzea da; horregatik, erlijio desberdinetako jendea irrezatu eta ospatzeko gonbitea egiten zaio.	<ul style="list-style-type: none"> - 1. alderdia: BIZIKIDETZA - 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA -SENTSIBILIZAZIOA 	Lizarran urtero egiten den topaketa: www.foroespiritual.org
Bilboko erlijioarteko mintegia		EDE Fundazioko pertsona sinismendunak partaide dituen eta haiek sustatutako mintegia, erlijio musulmaneko begiraleek aisialdiko talde kristauetan hezitzaile moduan parte hartzearen ondorioz sor daitezkeen arazoak berrezteko.	<ul style="list-style-type: none"> - 1. alderdia: BIZIKIDETZA - 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA -SENTSIBILIZAZIOA 	
LANAREN EREMUKO ARTEKARITZA		Ikastetxe erlijiosoan lan-eremuko artekaritzarako eskaerak hasi dira, bi gairekin lotuta: - Otoitza lanorduetan - Indarrean dagoen egutegian jasotzen ez diren festa-egunak.	<ul style="list-style-type: none"> - 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK - 3. alderdia: GATAZKA 	BILTZEN zentroan eskaerak biltzen hasi eta Lanekintza elkarrekin lantzen dira. CEAR Euskaditik enpresa-ehuna sentsibilizatzen da giza baliabide erlijiosoan eta kulturalki heterogeneoan gailan.

HEZKUNTZA FORMALA	Hainbat erlijiotako klaseak emateko estatu mailako hitzarmenak	Erlijioaren irakaskuntza arautzen duen 1994ko abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuaren 2. artikuluan (1995eko urtarrilaren 26ko 22. zk. BOE, 2045) ³⁷ ; Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan, ikastetxe pribatu nahiz publikoetan, erlijioaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea adostu eta zer legeg xedatzen duen zehazten da.	- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA - GATAZKA	Hitzarmenek bilera hauei egiten diete erreferentzia: - Espainiako erakunde erlijioso ebanjelikoaren federazioa. - Espainiako komunitate israeldarren federazioa. - Espainiako islamiar batzordea.
	Bilboko bakearen aldetako astea	Bilboko Udalaren ekimena. 2009. urtetik erlijioen gai espezifikokoekin lotutako eguna antolatzen da.	- 1. alderdia: TEOLOGIA - BIZIKIDETZA - 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK - KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA -SENTSIBILIZAZIOA	
	Kristauen batasunaren aldetako otoitz-astea	Eliza katolikoko eta komunitate ebanjelikoetako hainbat taldek otoitzak eta elkarrizketak antolatzen dituzte. Bizkaiko elizbarrutiak otoitza antolatzen du katedralean beste kristautasun komunitateetako ordezkariekin.	- 1. alderdia: TEOLOGIA - BIZIKIDETZA - 2. alderdia: KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA -SENTSIBILIZAZIOA	

³⁷ Erlijioaren irakaskuntza arautzen duen 1994ko abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretua. 2. artikulua:

1. *Era berean, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko 1990eko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera eta estatuak Espainiako erakunde erlijioso ebanjelikoaren federazioarekin, Espainiako komunitate israeldarren federazioarekin eta Espainiako islamiar balzordearekin diuen lankidetzaz-hitzarmenaren arabera, 1992ko azaroaren 10eko 24, 25 eta 26/1992 Legeen bidez onartutakoak, hurrenez hurren, aipatutako konfesioko erlijioaren irakaskuntza aurreko artikuluko 1. atalean aipatutako hezkuntza maila eta ikastetxeetan jasotzeko eskubidea bermatzen da.*

2. *Aurreko atalean xedatutakoaren arabera, aipatutako erlijioen irakaskuntza estatu espainiarrarekin adostutako lankidetzaz-hitzarmenetara egokitu da.*

<p>HEZKUNTZA EZ FORMALA (aisia eta denbora librean jasotzen ditu) SENTSIBILIZAZIOA</p>	<p>Erakusketa libiltaria eta mundu arabiarrari buruzko hitzaldiak</p>	<p>Algortako "Arrabita" arabiar-libriar zentroak antolatuta.</p>	<p>- 1. alderdia: TEOLOGIA - ESKUBIDEAK - 2. alderdia: KREDOAK - 3. alderdia: SENTSIBILIZAZIOA</p>	<p>Auzoetara bideratutako hainbat meskitaren ekimenak dira, emaitzak epe luzera soilik ikus daitezke.</p>
<p>Ate irekien jardunaldiak meskitetan</p>	<p>Hainbat meskitak (Orioko meskita, Begoñazpiko Assalam meskita, Bilbo) ate irekien jardunaldiak antolatzen dituzte fede musulmana aitortzen ez duen jendeak eremua eta erlijioa ezagutu ditzan.</p>	<p>Hainbat meskitak (Orioko meskita, Begoñazpiko Assalam meskita, Bilbo) ate irekien jardunaldiak antolatzen dituzte fede musulmana aitortzen ez duen jendeak eremua eta erlijioa ezagutu ditzan.</p>	<p>- 1. alderdia: BIZIKIDETZA - 2. alderdia: KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA - SENTSIBILIZAZIOA</p>	<p>Auzoetara bideratutako hainbat meskitaren ekimenak dira, emaitzak epe luzera soilik ikus daitezke.</p>
<p>Fede-aukerako begiraleen ikastaroak</p>	<p>EDE Fundazioan astialdirako begiraleen ikastaroak eskaintzen dira eta sinesmenaren alorra jasotzen dute, erlijio katolikoaren ikuspegiarekin. Esperimentazio-prozesuan dago ikastaro horietan musulmanen parte-hartzea eta haien eta erlijio katolikoko begiraleen arteko bizikidetzak.</p>	<p>EDE Fundazioan astialdirako begiraleen ikastaroak eskaintzen dira eta sinesmenaren alorra jasotzen dute, erlijio katolikoaren ikuspegiarekin. Esperimentazio-prozesuan dago ikastaro horietan musulmanen parte-hartzea eta haien eta erlijio katolikoko begiraleen arteko bizikidetzak.</p>	<p>- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA - SENTSIBILIZAZIOA</p>	<p>Auzoetara bideratutako hainbat meskitaren ekimenak dira, emaitzak epe luzera soilik ikus daitezke.</p>

ERLJIO ASKASUNAZ GOZATZECO ESKUBIDEA	Kulturako edo jarduera erlijiosoetarako eremuen lagapena	<p>Ignazio Ellakuria Gizarte Fundazioa, Kultu espezifikoak edo katekesia / prestakuntza gauzatzeko, udalari ins-talazio handiak eskatzeko aukerarik ez duten komunitate erlijioso txikiei uzten dizkio Ellakuria zentroko loka-lak (aretoak eta kapila).</p>	<p>Ignazio Ellakuria Gizarte Fundazioa, Kultu espezifikoak edo katekesia / prestakuntza gauzatzeko, udalari ins-talazio handiak eskatzeko aukerarik ez duten komunitate erlijioso txikiei uzten dizkio Ellakuria zentroko loka-lak (aretoak eta kapila).</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK – 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p>	<p>Bilbo erijio edo kultur alorre-ko ospakizunetarako lokalak lagapenean erreferentzia bi-lakatzen ari da.</p>
		<p>Parrokia jakinak. Zenbait parro-kiak (Bilboko 5. parrokia; Amara-koa Donostian) beste kultu erlijiosoeta-rako uzten dute euren eremua.</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK – 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p>	<p>Eremuaren lagapena une ho-rretan parrokiaren buru den pertsonaren (parrokoaren) araberakoa izaten da.</p>	
		<p>Elizbarrutia. Derion komunitate ortodoxo erruma-niarrari kultua egiteko eta katekesi-rako espazioa eskaintzen zaio. Gasteizen, modu berean, komunita-te ortodoxo errusiarrari eskaintzen diote.</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK – 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p>		
		<p>Ignazio Ellakuria Gizarte Fundazioak elkarte laikoentzako eta erlijiosoent-zako laguntza- eta jarraipen-zerbitzua eskaintzen du.</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: PERTSONAK - KREDOAK – 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p>		

	<p>Kolektiboentzako laguntza</p>	<p>BILTZEN zentroak erlijio-askatasunaz baliatzeko laguntza eskatzen duten kolektiboentzako laguntza eskaintzen du.</p> <p>BILTZEN zentroak eta Ignazio Ellakuria Gizarie Fundazioak laguntza eskaintzen dute administrazio publikoetara kultura egiteko espazioen lagapen- eskaria egiteko.</p> <p>BILTZEN zentroak egindako arteak-iritza.</p>	<p>- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p> <p>- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p> <p>- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p> <p>- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: KREDOAK - ERAKUNDEAK - 3. alderdia: SENTSBILIZAZIOA</p>	
	<p>EAEko kolektiboan erlijio-festen egutegia egitea.</p>			
	<p>Kultura egiteko espazioen eraiketa.</p>			

EGINDAKO IKERKETA / AZTERKETAK	
<p>EAEko erlijio-aniztasunari buruzko mapa</p>	<p>EAEn Ignazio Ellakuria Gizarte Fundazioak egindakoa. Helburua pluraltasun erlijiosoa islatzea da, gizarteko konfesio-aniztasuna islatzen duen errealitatea; biztanleria-ren gehiengoarentzako ezezaguna eta berria den errealitatea.</p>
<p>Ikerketa-proiektua administrazio publikoekin</p>	<p>Pluraltasun- eta bizikidetzakimena (estatuko leerro orokorra), horren bitartez 4 udalerrri hautatzen dira zoriz erlijio-aniztasunaren kudeaketa eza-guitzeko.</p>
<p>- 1. alderdia: TEOLOGIA - 2. alderdia: ERAKUNDEAK - 3. alderdia: SENTSIBILIZAZIOA</p>	<p>Autonomia-erkidegoetan mapak egiten ari dira erlijio- eta kontzientzia-askatasunaren aitorpenerako aurrerapauso moduan. Aitorpen hori faktore erabakigarria da konfesio gutxiak gizarteratzeko aurrerapenean.</p>
<p>- 1. alderdia: ESKUBIDEAK - 2. alderdia: ERAKUNDEAK - 3. alderdia: GIZARTERATZEA</p>	<p>Administrazio publikoek alde-kereta egin zaie gai erlijiosoari lotuta egin dutenari edo egiten ari direnari buruz. Bestalde, udalerriko komunitate baten azterketa kualitatiboa egin dute eta beste bi aukeratu dituzte gaideketak egiteko. Estatu mailan guztira 30 udalerrrik hartu dute parte.</p>

PRESTAKUNTZA / JARDUNALDIAK				
<p>Giza Eskubideei buruzko jardunaldiak.</p>	<p>Gipuzkoako Aldundiak antolatutakoak. Aurturten erlijioari zuzendutakoak izan dira: "Giza Eskubideen V. topaketa. Erlijioa eta giza eskubideak esparru publikoan".</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: ERAKUNDEAK - PERTSONAK – 3. alderdia: SENTSIBILITAZIOA</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: ERAKUNDEAK - PERTSONAK - ERAKUNDEAK – 3. alderdia: SENTSIBILITAZIOA</p>	
	<p>Kultua egiteko eta ehorzketarako tokiei buruzko Bilboko Udalaren jardunaldia (Bidebarrietan).</p> <p>Bizkaiko Aldundiak antolatutakoak. "Erlijioa eta giza eskubideak: erlijio-eta kultura-aniztasunaren adierazpenak" izenburuko Giza Eskubideei buruzko jardunaldia³⁸.</p>	<p>– 1. alderdia: TEOLOGIA - ESKUBIDEAK – 2. alderdia: PERTSONAK - ERAKUNDEAK – 3. alderdia: SENTSIBILITAZIOA</p>	<p>– 1. alderdia: TEOLOGIA - ESKUBIDEAK – 2. alderdia: ERAKUNDEAK – 3. alderdia: SENTSIBILITAZIOA</p>	<p>Administrazio publikoetako langile guztiei urtero eskaintzen zaien prestakuntza.</p>
<p>Zenbait kolektiboren prestakuntza erlijioarekin lotutako gaietan.</p>	<p>– Polizientzako prestakuntza (Arkauten)</p>	<p>– 1. alderdia: ESKUBIDEAK – 2. alderdia: ERAKUNDEAK – 3. alderdia: SENTSIBILITAZIOA</p>		

³⁸ http://www.idh.deusto.es/servlet/Satellite/Noticia/1224669801044/_casf/%231116406939966%23122961496678770/c0/UniversidadDeusto/comun/render?tipoColeccion=Page.

4. PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN ETA ELKARTEEN ZERRENDA

ACCEM BIZKAIA

Genaro Oráa kalea, 3-Behea A
48980 Santurtzi
Telefona: 94 483 90 23
www.accem.es

ALDARTE

Berastegi kalea 5 – 5, 8. eta 9. dept.
48003 Bilbo
Telefona: 94 423 72 96
www.aldarte.org

BIZITEGI ELKARTEA

Langaran kalea, 14 – Behea
48004 Bilbo
Telefona: 94 608 70 08
www.bizitegi.org

SORTARAZI, GIZA GARAPENERAKO KLARETAR ELKARTEA

San Frantzisko kalea, 12
48003 Bilbo
Telefona: 94 415 74 24
www.sortarazi.org

GETXOKO UDALA

Martikoena kalea 16
48992 Getxo
Telefona: 94 466 01 30
www.getxo.net

ESPETXEETAKO PASTORALGINTZAKO BIDESARI ELKARTEA

Iturriza kalea, 4-solairuartera
48003 Bilbo
Telefona: 94 421 09 17
www.bidesari.org

AGIANTZA ELKARTEA

Maiatzaren Biko kalea 20, behea.
Bilbo 48003
Telefona: 944154988
www.agiantza.org

BAGABILTZA ELKARTEA

Sagarminaga etxaldeko 16. eta 17. sotoak
Bilbo
Telefona: 94 473 14 44
www.bagabiltza.com

GOIZTIRI ELKARTEA

La Providencia kalea, 19
48901 Barakaldo
Telefona: 94 478 05 41
www.goiztiri.org

BARAKALDOKO UDALA

Biltzar Nagusien kalea, 10-2. solairua
48901 Barakaldo
Telefona: 94 478 91 11
www.barakaldo.org

BAKETIK

Gandiaga Topagunea - Arantzazu
20567 Oñati
Telefona: 943 25 10 05
www.baketik.org

BILTZEN

Blas de Otero kalea 11
48014 Bilbo
Telefona: 94 400 19 00
www.biltzen.org

BILBOKO ELIZBARRUTIKO CARITAS

Erribera kalea 8
48005 Bilbo
Telefonoa: 94 402 00 99
www.caritasbi.org

BIZKAIKO EMAKUMEEN SUSTAPENERAKO ZENTROA

Henao kalea, 7 - 7 8. dept.
48009 BILBO
Telefonoa: 94 423 6494
www.fundacioncpmb.org

EUSKADIKO GURUTZE GORRIA

Jose María Olabari kalea, 6
48001 Bilbo
Telefonoa: 94 420 33 55
www.cruzroja.es

SARTU FEDERAZIOA

Bailen kalea, 5-Sotoa ezkerrean
48003 Bilbo
Telefonoa: 94 416 04 20

ADSI FUNDAZIOA

Aita Larramendi kalea, 2 – solairuartea ezk.
48012 Bilbo
Telefonoa: 94 422 28 33
www.fundacionadsis.org

ITAKA – ESKOLAPIOAK FUNDAZIOA

Juan de Ajuriaguerra kalea, 15
48009 Bilbo
Telefonoa: 94 424 49 54
www.itakaescolapios.org

CEAR EUSKADI

Kristo kalea, 9B-5
48007
Telefonoa: 94 424 88 44
www.cear.es

CONSEJO DE LA JUVENTUD DE EUSKADI - EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

Autonomia kalea, 44 – Behea
48010 Bilbo
Telefonoa: 94 443 61 43
www.egk.org

EMAUS S.COOP. I. S.

Sabino Arana kalea, 42
48003 Bilbo
Telefonoa: 94 416 88 96
www.emausnet.com

BANKU ETIKOA TALDEA - FIARE

Santa Maria kalea, 9
48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 34 96
www.fiare.org

EDE FUNDAZIOA

Simon Bolivar kalea, 8b
48010 Bilbo
Telefonoa: 94 400 99 99
www.fundacionede.org

PEÑASCAL FUNDAZIOA

Belategi plaza, 1-Behea
48002 Bilbo
Telefonoa: 94 470 07 92
www.fundacionpenascal.com

IGNAZIO ELLAKURIA GIZARTE FUNDAZIOA

Aita Lojendio kalea, 2-1. eskubia
48008 Bilbo
Telefonoa: 94 446 59 92
www.centroellacuria.org

HELDU

Saralegi plaza, 4
48003 Bilbo
Telefonoa: 94 433 47 00

EUSKARRI Koop. E. de Iniciativa Social E.I

Aita Lojendio kalea, 1 - Bulegoak
48008 Bilbo
Telefonoa: 94 479 51 70

ENPLEGUA SUSTATZEKO ELKARTEA – ENPLEGU FUNTSA

San Vicente errepidea 10. Km-a
48510 Bilbo
Telefonoa: 94 472 47 29

LIMEMIA

Aita Lojendio kalea, 2-1. eskubia
48008 Bilbo

EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN

Basauriko Jabekuntza Eskola (igandetan
11:00etan)
Axular kalea, 28
48970 Basauri
Telefonoa: 605382124
www.mujaresenladiversidad.org

GUZTIOK PROIEKTUA

Mundakako Udala
Lehendakari Agirre plaza
48360 Mundaka
Telefonoa: 652 756 141

ARABAKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTOA IRSE-EBI

Errekatxiki kalea, 19 – Behea
01003 Vitoria – Gasteiz
Telefonoa: 945 25 69 32
www.irsealava.org

ELKARBANATUZ ERAKUNDEA

Madariaga etorbidea, 67
48014 Bilbo
Telefonoa: 94 476 41 36
www.elkarbanatuz.org

LANBERRI

Donibane plaza 4, Behea
48006 Bilbo
Telefonoa: 94 416 03 68
www.lanberri.org

MARGOTU ELKARTEA

Masustegi estrada, 347 – 2
48002 Bilbo
Telefonoa: 94 427 85 70
www.margotu.net

MUNDUKO EMAKUMEAK - BABEL

Fika kalea, 5 – Behea
48006 Bilbo
Telefonoa: 944005417
www.mujaresdelmundobabel.org

UNESCO Etxea

Isozaki Atea – Bizikidetza plaza
Uribitarte pasealekua, 12, 2. lokala
48001 Bilbo
www.unescoetxea.org

ZUBIETXE ELKARTEA

Abenduaren 22 kalea, 1. eta 2. beheko solairuak
48003 Arrigorriaga
Telefona: 94 416 69 41
www.zubietxe.org

HARRESIAK APURTUZ – Etorkinei laguntzeko Euskadiko GKE-en koordinakundea

Bailen kalea, 11BIS – Behea
48003 Bilbo
Telefona: 94 415 07 35
www.harresiak.org

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Unibertsitateetako etorbidea, 24. 48007 Bilbo
Telefona: 94 413 90 00
www.deusto.es

Euskal Herriko kolonbiarren elkartea – ASOCOLVAS

Zabalbide kalea, 19 Behea
48006 Bilbo
www.asocolvas.com

REAS EUSKADI – Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.

Ekain Koben kalea, 3-1
48005 Bilbo
Telefona: 94 416 05 66
www.economiasolidaria.org

EAPN EUSKADI – Euskadiko pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea

Ekain Koben kalea, 3-1
48005 Bilbo
Telefona: 94 416 18 84
www.eapneuskadi.net

TERMINOEN GLOSARIOA

- **ARARTEKOA:** Herriaren defentsaria. Arartekoa EAeko administrazio publikoen (Eusko Jaurilaritza, foru-aldundiak, udaletxeak eta administrazio horien mendeko erakunde publikoak) jarduerekin eta politika publikoekin lotutako giza eskubideen defentsarako Eusko Legebiltzarreko goi-komisarioa da.
- **UDALA:** udaletxea.
- **BBK:** “Bilbao Bizkaia Kutxa” izeneko Bizkaiko banku-erakundea.
- **JARDUNBIDE EGOKIA:** gobernuz kanpoko erakundeek, erakunde publikoetan oinarria dutenek edo sektore pribatuak martxan jarritako jarduerak, ekimenak edo proiektuak; ondoren, eredu gisa balio dezakete beste erakundeek haietatik ikasteko edo haien egoeretara egokitzeko. Bideratze berritzaileak izango lirateke, EAEn immigrazioaren alorrean hobekuntza zehatzak, neurgarriak eta **iraunkorrak** xede dituzten beste erakundeetara transferitu daitezkeenak.
- **EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa.
- **BIZTANLERIA:** (Azki humanitario eta Garapenerako Lankidetzako HEGOaren hiztegia³⁶) gizaki guztiak komunitate politiko bereko kide gisa identifikatzea ahalbidetzen duen baldintza.
- **KOGARAPENA:** herritar etorkinek euren jatorrizko herrialdeetako garapen-bektore gisa funtzionatzen duten kooperazio modua. Naïrek honela definitzen zuen kogarapena: “immigrazioa eta garapena batzeko proposamena, horrela, bi herrialdeek (igorlea eta hartzailea) migrazio-fluxuen onura izango dute. Hau da, bi herrialdeen artean adostutako lotura mota da; hori horrela, etorkinen harrera-herrialdeari egindako ekarpena ez da herrialde igorlearen galera bihurtuko”. Horren defendatzaileek herrialdeen arteko lankidetzaren sustatzen duen eredua dela baieztatzen dute eta ez garapenerako kooperazio-eredu tradizionala bezala, iparra-hegoa lotura bertikala irauarazten duena.
- **SAILA.** Saila, departamentua
- **EAPN:** pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea. Ingeleseko sigletatik: European Anti Poverty Network.
- **ENPLEGAGARRITASUNA:** a) banako jakinak duen **potentziala** (profil profesionala) enpresak eskatu eta nahi izateko. b) banako jakinak bere profilaren errentagarritasun maximoa ateratzeko duen **gaitasuna**.
- **GIZARTERATZEKO ENPRESA:** desabantaila sozialeko egoeran edo bazterkeria-egoeran dauden kolektiboek enplegu normalizatura heltzeko aukera ematen dien erakundea. Enplegua lortu aurretik laguntza ematen zaie denbora-tarte jakinean eta, ondoren,

³⁶ www.hegoa.ehu.es

ondasunak ekoizten dituen edo irabazi-asmorik gabeko zerbitzua eskaintzen duen merkataritzako egituran lanpostua garatzen dute. Hori da beharrezko giza baliabide eta baliabide teknikoekin kalitatezko zerbitzuak eskaintzeari gehitutako balioa. Merkatuko (publiko nahiz pribatua) aukerak areagotuz ondasunen eta zerbitzuen merkaturatzea sustatzea gure gizartean erantzukizun sozialeko irizpideen hedapenean laguntzea da.

- **INE:** Estatistikako Institutu Nazionala
- **GIZARTERATZEA:** sistema marjinalen (bazterketa) dauden pertsonen herrialde jakinean lortutako gutxieneko ongizate sozial eta bizi mailan parte hartzeko aukera ematen dien prozesu dinamiko eta faktoreanitzia.
- **BITARTEKOTZA:** (RAEren arabera³⁷) Bi pertsona edo erakunde (edo gehiago) adostasunera hel daitezen harremanetan jartzea.
- **LOEX:** atzerriartasunaren legea.
- **ARTEKARITZA:** (RAEren arabera) Liskarrean edo eztabaidan ari diren bi edo gehiagoren artean sartzeari elkar konpondu eta laguntasunean batu daitezen.
- **ELGA:** Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea. 1961. urtean sortu eta 30 herrialdez osatutako munduko erakundea. ELGAN kide diren herrialdeetako ordezkariak biltzen dira informazioa trukatu eta politikak harmonizatze, hazkunde ekonomikoa areagotze aldera eta haien eta kide ez diren herrialdeen garapena bultzatze aldera.
- **REAS:** Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.
- **ERREGULARIZAZIOA:** Espainiako estatukoa ez den pertsonari bertan geratzea ahalbidetzen dion prozesua, legeak xedatutako baldintzak betez (lan-baimena, egoitza-baimena... lortzea).
- **IGORPENAK:** familia-bidalketak etorkinek jatorrizko herrialdeetara igorritako diru kopuruak dira.
- **SOPEMI:** International Migration Outlook. ELGAK gauzatutako nazioarteko immigrazioari buruzko ikuspegia. ELGAREN web orrialdean eskura daiteke: <http://www.oecd.org/dataoecd/5/20/43176823.pdf>
- **JARDUERA TASA:** lan egin dezaketen pertsonen ehunekoa da (lan egiteko adina dutenak: 15 eta 64 urte artean), lan egiten duten ala ez albo batera utzita.
- **OKUPAZIO TASA:** lanpostua duten pertsonen ehunekoa da eta okupatutako pertsona kopuru totalaren (15 eta 64 urte artekoa) eta adin-tarte horretako biztanleria kopuru totalaren arteko zatiketarik ateratzen da.
- **BOE:** Babes Ofizialeko Etxebizitza.

³⁷ Real Academia de la lengua Española erakundearen hiztegia.

BIBLIOGRAFIA

- IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA – IKUSPEGI. (2007). “EAEko biztanleria atzerritarrari egindako lehen makro – galdeketa”. 19. panoramika. Ikuspegi buletina.
- IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA – IKUSPEGI. (2008). “EAEko biztanleria atzerritarra. 2008ko abuztua”. 23. panoramika. Ikuspegi buletina.
- IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA – IKUSPEGI. (2007). “Atzeritar etorkinen bizitoki-banaketa EAEko hiru hiriburuetan”. 16. panoramika. Ikuspegi buletina.
- OTERO, B. (2009) “EAEko bizitoki-aldaketak 2002-2006”. Argitaletxea: Immigrazioaren Euskal Behatokia – IKUSPEGI.
- IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA – IKUSPEGI. (2008). “Egoitza-baimena eta Gizarte Segurantzian afiliatzeko baimena”. 21. panoramika. Ikuspegi buletina.
- EAEko II. IMMIGRAZIO PLANA (2007-2009)
- PAJARES, M. (2009). “2009ko txostena. Immigrazioa eta lan-merkatua”. Immigrazioaren Behatoki Iraunkorreko dokumentuak. Lan eta Immigrazio Ministerioa.
- KULTURARTEKO HEZKUNTZA TXOSTENA: “Vivre ensemble autrement” (2002ko urria) txosten pedagogikotik ateratako artikulua, Annoncer la Colour garapenezkuntzaren kanpainari dagokiona, estatuko idazkaritzaren ekimena Belgikako garapenaren kooperaziorako. CIPFUHEM-erako itzulpena: Elsa Velasco.
- MUNDUKO EMAKUMEAK. (2006). “Abanico de colores”. Bilduma: Sistematizando aprendemos. Alberdania argitaletxea, Zarautz.
- ENPLEGU ETA GIZARTE GAIIETAKO SAILA. “Revista de Servicios Sociales. Gizarte-zerbitzuetako aldizkaria”. 2009ko ekaina. 45. zenbakia.